

Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi
Saindu batzuen biziak. 2007
2. *Pierre Charritton*
Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*
Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi
Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*
Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*
Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Biziaren Hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia*
Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*
Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi
Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti
Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi
Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*
Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*
Escritores euskéricos
contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi
Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011



Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzaileak:



GRATIEN
ADEMA
ZALDUBI

ALEGIAK ETA BERTZE NEURTITZAK

GRATIEN ADEMA
ZALDUBI

ALEGIAK ETA BERTZE NEURTITZAK

Argitalpenaren paratzailea: **Henri Duhau**



EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



HENRI DUHAU

Beskoitzen sortua 1942an.
Laborari semea; laborantzako ikasketak.
Soldadutzatik landa, lur berri egiten Donapaleutik teknikari gisa,
Jean Errecart senatariaren zuzendaritzapean.
1968an Senpererat ezkondurik merkataritzan erretiratarat heldu arte.
Lehen artikulua euskaraz, 1961eko urtarrilean,
Gazte kazetan (duela 50 urte!).
Gaur Euskaltzaleen Biltzarreko kide.
Elkarteburu ere izana: Euskaldun Gazteria, Zirikolatza,
Senpereko Gure Iurrak, Euskal Dantzarien Biltzarra...
Elkarte sortzaileetarik izana: Senperen Aro Berri,
Senpereko ikastola,
Aide Familiale Rurale, Izan eta Gure Herria talde politikoak,
Elkarri, Egunkaria sortzen...
Idatzi du aldizkari hauetan: **Herria**, **Otoizlari**, **Dantzariak**,
Ekaina, **Denak Argian**, **Enbata**...
Liburukiak:
- **Hasian-hasi** (lehena, 1993);
- **Euskal aditz batua** (1996);
- **Aupa batasuna** (2000);
- **Hasian-hasi** (bigarrena, 2002);
- **Hortzak izerdi** (2005);
- **Dufau bi anaiak** (2006);
- **Saindu batzuen biziak** (Gratien Adema, 2007);
- **Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak** (Gratien Adema, 2008);
- **Kantikak** (Gratien Adema, 2009);
- **Prediku zenbait** (Gratien Adema, 2009);
- **Bidegileak** (Jean Barbier, 2009);
- **Bidegileak** (Dominique Dufau, 2009);
- **Lapurdiko ihauteria eta mutxikoen pizkundea** (2009).

GRATIEN ADEMA "ZALDUBI"
(1828-1907)

ALEGIAK
ETA BERTZE NEURTITZAK

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

ISBN: 978-84-95438-75-1

Lege-gordailua: BI-951-II

GRATIEN ADEMA “ZALDUBI” (1828-1907)

ALEGIAK ETA
BERTZE NEURTITZAK

Argitalpenaren paratzailea: Henri Duhau

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2010

AURKIBIDEA

Gratien ADEMA “ZALDUBI” (1828-1907)

Andres Urrutia (1954)	
Euskaltzainburuaren aurkezpena	I
Henri Duhau (1942)	
Gratien ADEMA-ZALDUBIren biziaz eta lanez zenbait xehetasun	3
Bizpahiru oharpen orokor	4
Idazkera edo grafia kontuez	6
1. liburukia: “Saindu batzuen biziaz”	8
2. liburukia: “Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak”	10
3. liburukia: “Kantikak”	13
4. liburukia: “Prediku zenbait, Hazpainen eginak”	15
5. liburukia: “Alegiak eta bertze neurtitzak” (eskuarteko hau) .	16

Ene loreak

Belea eta Axeria	23
Kuia eta Ezkurra	27
Akerra eta Axeria	31
Abereak izurritearekin	37
Otsoa eta Bildotsa	45
Axeria Otsoa eta Zaldia	47
Tupina eta Eltzea	53
Betirisants [1846]	57
Betirisants [bigarren bertsioa]	65
Denboraz Moro-Sarasinen eta Eskualdunen artean gertaturikako gudu batez	75
Eskualdunaren omore oneko kanta	93
Eskualdunen omore txarreko kanta	97
Primadera	101
Zumalakarregi	107
Andredena Mariari	111
Zeruko Erreginari	115
Aita Saindu, fedezko gauzetan ezin tronpa daite[kee]nari ...	119
Pilotari gazteak	127
Chesnelong jaunari	135
Murde Diharassarry-ri	138
Bidarrain nintzelarik	139
Ene auzotegian bi senar emazte	141

— II —

[Bertze batzuen lorategietan bilduak]

Zaldi zahar baten gainean	157
Hiltzeko menean [den] gizon gazte baten gogoetak	159
Zumalakarregi	165
Alexisen heriotzearen gaineko bi artzainen solasak	179
Lehen Errepublikako denboran egin zen besta baten gainean ..	185
Bare baten gainean	189
Eri baten gogoetak	191
Eri baten liraren auhenak	201
Ikazkinaren mandoa	213
Ezkerraren zamaria	235
Solbezio arratsaldean Arnegin etxe batean	239
Zer egin zare koplari zaharra?	243
HIZTEGITXOA	273

Laguntzaile eta sustatzaileak:

Pierrette Dourisboure, artxiboen begiralea;
Arnaud Dourisboure,
Jean Dourisboure,
Bernadette Mazet Dourisboure,
laurak Gratien Adema-Zaldubiren ilobaren arra-haurrak.

Eta:

Andres Urrutia, Euskaltzainburua;
Aurelia Arkotxa, Euskaltzainburuordea;
Piarres Aintziart, Euskaltzaleen Biltzarreko elkarburua;
Ales Bengoetxea, 1990ean egin zuen lanarentzat;
Senpereko Herriko Etxea, brontzezko orhoitgarriaren egilea.

Diruztatzaileak ahantzi gabe:

Euskaltzaleen Biltzarra;
Euskararen Erakunde Publikoa;
eta oroz gaineratik, Euskaltzaindia.



Gratien Adema "Zaldubi"
(1828-1907)
Jaun Kalonje senpertarra



Jarrita eskuinetarik Gratien Adema “Zaldubi”;
Xutik ezkerretarik : Jean-Blaise Adema haren iloba apeza (1861-1936)
hau ere ‘Eskualduna’ astekariaren buru egona 1918tik 1925erat.



Gratien Adema “Zaldubi”-ren argazki bat bere liburutegi ederki begiratuaren aintzinean. 2007ko argazkia.



«GRATIEN ADEMA ZALDUBI 1828-1907»
Brontzezko orhoitgarria, Edouard Solorzanok asmatua,
Senpereko Herriko Etxeak eraikia,
Euskaltzaindiak eta Euskaltzaleen Biltzarrak batean estreinatua,
2007ko abenduaren 20ean.

Aurkezpena

Adema bosgarrenean, alegiazko egiaz

Aurten beteko dira lau urte Henri Duhau euskaltzale gartsu eta sutsuak egin proposamena Euskaltzaindiak onetsi eta bere gain hartu zuela, lehenak eskuizkribuak moldatu eta bigarrenak argitaratu, faksimil gisara, Gratien Adema *Zaldubi* euskal idazlearen lanak.

Ordutik hona etenik gabe eta zintzotasunez eta trebeziaz, Henri Duhauk ondu du, eraman handirekin, halako kate ikusgarria, non Adema zenaren testugintza-eskulanak eta irakurle euskaldunaren gogo bat egiten eta irmoki estekatzen diren.

Kate horren osagaiak izan dira *Saindu batzuen biziaz* (2007), *Zaldubi: Artzain beltzaren neurtitzak* (2009), *Kantikak* (2009), eta *Prediku zenbait* (2010). Oraingotan, bide beretik, *Alegiak eta bertze neurtitzak* datozkigu, hurrenez hurren, egilearen eskutik ber-bertatik atera ziren moduan.

Modu eder eta txukunean datoz hauek ere, aurrekoak bezalaxe. Modu horri gehitu dizkio Henri Duhau euskaltzaleak, testuaren transkripzioa, oraingo grafiaz eta eraz, oharrak eta hiztegitxoak, sarrera trinkoa ere bazter uzteke. Hitz batez esateko, iraganekoa eta oraingokoa uztartu ditu, testura hurreratzen den orok aise irakur eta barnera ditzan *Zaldubiren grazia* eta dohaina.

Badugu, beraz, hats luzeko egitasmo baten bosgarren ekarria, titulutik bertatik iragartzen diguna barruko alegiek argitalpenaren egia osatzen dutela. Norbaitek esan dezake, liburu andana hau ikusita, alegia deus ez, egin duela lan Henri Duhauk. Haren erraztasuna ez dut ukatuko. Bai, ordea, goratuko haren ahalegin txukun eta maila handikoak. Eskerrak eta goresmenak berari eta orobat, Euskararen Erakunde Publikoari, Senpereko Herriko Etxeari eta *Euskaltzaleen Biltzarraren* adiskideei, guztion sustengu eta laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen liburu hau argitaratzea.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

**Gratien ADEMA-ZALDUBIren
biziaz eta lanez zenbait xehetasun**

Haren biziaz eta lanez xehetasun batzuk errepikazen ditugu bortzgarren liburuki honetan ere. Argitasun gehiago kausituko duzue, haatik, jadanik argitaratuak diren lau liburukietan: 1, 4, 10 eta 12.ak ‘Euskaltzainak’ sailean.

Gratien Adema-Zaldubi:

—1828an, apirilak 14, Senperen sortua; sei haurrideetarik azkena.

—1843an, 15 urtetan, Larresoroko ikastetxe ezagutuan sartzen da. 18tan adin berekoa duen eta hain famatua bilakatuko den Jean Baptiste Elissambururekin paratzen dituzte elkarrekin beren lehen bertsoak. Gero Larresorotik Baionarat doa apez ikasketak bukatzeko.

—1853an apeztu-eta berehala Larresoron dugu berriz, baina irakasle bezala aldi honetan.

—1854an Hazparnerat izendatzen dute bikario; hor egonen da sei urtez. Fama handia bilduko du bereziki 1858ko sukar ustelaren karietarat (*fièvre typhoïde*) erakutsi zuen kuraia edo adore handiagatik, ‘Gaskoinaren’ hiltzea eta Hazketako neska gaztearen ehorzketak hor ditugu lekuko...

—1860an Bidarrain da erretore eta han egonen da hamabi urtez. Orduan jalgiko da lehenik “Xauxundegiko xakurra”, gero “Xuriko” eta azkenik “Mehe-tegiko xakurra” deituko den kantu famatua, Otxaldek hasia eta beraz Zaldubik bururatua.

—1872an Atharratzerat izendatzen dute erretor nagusi eta han egonen da hemezortzi urtez. Sekulako liskarrak daramatza horko auzapez ‘gorriarekin’.

—1890ean Baionan katedraleko Kalonje.

—1907an, abenduaren hamarrean eman zuen azken hatsa. Gorputza Senpereko etxondoko hilobi panteoian dagoela.

Bere apez ikasketa eta lanen artetik anitz idatzi du kasik beti euskaraz eta bereziki “Lore Jokoak” (*Jeux Floraux*) delakoetan parte hartu du, sari andana bat irabaziz.

Idatzizko lan horien gainerat azpimarratu behar da, euskal elkarte zaharrena, Eskualtzaleen Biltzarra sortu zelarik 1901-1902an, Euskal Herri osoko euskaltzale handienak bilduz, Adema-Zaldubi ezarri zutela buru eta buruordeak ez zituela nornahi: Sabino Arana-Goiri bera eta Arturo Campion!

Jakin behar da ere euskal akademia baten beharra sentitua zuela aspaldi gure Adema-Zaldubik. Lekuko hor dugu Azkueri idatzi zion gutuna 1894ko apirilean... Akademia hori edo Euskaltzaindia 24 urte geroago sortuko da, denek dakigunez.

Predikari gaitza zen, boz ederra, musika ezagutzen, sineste eta kultura handiko apeza eta hortik abiatzen da haren obra guzia. Haren fede-irizpide batzuk aldatu dira, haatik, geroztik, bertze edozein alorretan gertatu den bezalaxe...

Jadanik erran izan dugun bezala Adema-Zaldubiren lanik gehienak (predikuak salbu, haatik) argitaratuak izanak dira, bizi zelarik andana bat eta hil ondoko urteetan berriz, 1908tik goiti, RIEB edo “*Revue Internationale des Études Basques*” agerkari famatuan bai eta “Eskualdun Ona” deitu kazetan. Baina lan horiek guziak liburutegietan eta artxibategietan daude bakarrik.

Horretako eta bereko Euskaltzaindiak erabaki du haren lan gehienen berriz publikatzea, eskuizkribuak harturik oinarri, zinez merezi baitute.

Bertzalde, mendeurren horren karietarat, euskaldun patriarka batentzat eta senpentar handienarentzat daukagunaz Euskaltzaindiak publikatu ditu zernahi xehetasun eta iker-lan. Ikus: “Euskera” 2007, 3-52. liburukia (2.aldia) Bilbo (*separata*).

Bizpahiru oharpen orokor

Argi eta garbi errepikatzen dugu: liburuki hauek, jadanik publikatuak ala oraino argitaratzekoak, ez direla edizio kritiko edo arakatzailerik batzuk; doidoia zenbait xehetasun laburrekin datoz, nor edo nor irakurtzen laguntzeko gisan; hots, publiko zabal-zabal batentzat apailatuak dira. Ikerleek hor dituzte eskuizkribuak, denak irakurgarriak, hala beharrean.

Euskara eskoletan eta gau-eskoletan gero eta gehiago irakasten da baina euskara batu horrekin kasu egin behar dugu, ohiko mintza molde eta literaturekin hausturarik ez dadin gerta, euskaldun zaharregandik bereiz ez gaitzen. Eta daukagu argitalpen hauek lagun gaitzaketela eginkizun horretan.

Hizkuntzari dagokionez erran dezagun lapurtera deitzen den euskalkiari tinko atxikitzen zaiola Adema-Zaldubi, nahiz hitz batzuk hartzen dituen bertzerenetan, Hegoaldeko zenbait barne.

Hitz batzuk beti berdín erabiltzen ditu, behin ere hutsegin gabe; haietan: **gare**, **zare**, **zarezte**, **dire**, eta holakoak; ez dugu-eta ikusi, ez ‘gira’, ‘zira’, ‘zirezte’, ‘dira’ bezalako formarik, bertso batzuen rima kausitzeko ez bada.

Halarik ere, **izaiten** atzeman dugu kasik beti, Senperen ‘izaten’ erraten delarik alta eta ikusiz Adema forma hori zer erregulartasunarekin erabili duen, ‘izaiten’-ek erakutsi bideari jarraiki gatzazkio; horrek, bertzalde, era-

kusten baitigu bertzeren euskalkietakoak bereak baino hobeak zitzaizkiolarik, haien erabiltzen bazekiela.

Guk ez dugu deusik idatzi berak, noiz edo noiz, idatzi ez badu; (ohargabeko haiek barka!) Erantsi ditugunak, hala-nola prediku edo bertso titulu batzuk, makoen [...] artean ezarri ditugu.

Egin duguna da, Adema-Zaldubiren eskuizkribu guziak ikuskatu ondoan, adibidez, **berdin** eta **bardin**, biak erabili baitzituen eta gure ustez adiera ñabardurarik sentiarazteko gogorik gabe, **berdin** hautatu dugula, batuan hala jarria delakotz.

Bide bertsutik joan gara **beizic** eta **baizen** agertu zaizkigularik; **baizik** ezarri dugu “gaurkoagoa” deritzogulakotz, bertso lerro-buruetan izan ezik.

‘Erljio’ hitza asko gisetarat darabil: **erlijione**, **erligione** bai eta **erlisione** ere; guk azken hau atxiki dugu, horrelaxe idazten eta ahoskatzen baita gehienki Lapurdi Baxenabarreko inguruetan.

Puntuazioa ere doi bat antolatzerat saiatu gara; lan arriskutsua, haatik, puntuazio hori desberdina izan baitaiteke mintzaldi batetarako testuan eta idazki soilerakoan. Puntuazioa da, hain xuxen, Adema-Zaldubik bere idazkietan gutienik landu duena..

Nahiz ez den gure helburuetan Adema-Zaldubiren hizkuntza sakonki aztertzea, aipa ditzagun halere zenbait berezitasun.

Maiz erabiltzen du ‘haina hura’ edo ‘haina he[ie]k’ delako ‘pertsonea [≈gaizto] hura’ edo ‘pertsonea [≈gaizto] haiek’ adierazteko. Gaur ez da entzuten gehiago forma hori baina Axular handiak erabiltzen zuen.

Idazki horietan aurkitzen dugu ere ‘ez du kasu hari’ menturaz guk orain ‘ez du kasurik egiten hari’ erran genezakeelarik.

Dena den, guziek miresten ahal ditugu Adema-Zaldubiren mintzaira eta idazkera. Miatu ditugu haren mila orrialdez goiti eta denak onak! Zinez, holako euskarazko eskuizkriburik ez da maiz aurkitzen: hainbertze orrialde eta denak hain garbiki ezarriak! Euskarazko lan horiei eman artak erakusten digu gure hizkuntzaren alderako estimu eta maitasun bat neurrigabea: deus ez zaio sobera gure hizkuntzari emateko eginahalako distira eta indarra!

Bai zinez holako dokumentuen eskuratzea eta haietaz goza-gozatzea, bizian behin bakarrik gertatzen dena dateke.

Gainerat, ohore handia da senpenterentzat, holako langileak Euskal Herriari eman izana: Gratien Adema-Zaldubi (1828-1907) eta Dominique Dufau (1880-1956) bata bertzearen ondotik, indartsu azaltzen baitzaizkigu, bazterren inarrosle! Jean Barbier (1875-1931) gure erretore idazle handiaren lanen bilduma bat ere ikus, 2010ean argitaratu berri dugun “Bidegileak” sailean. Ahantzi gabe ELKAR baitan Franck Dolosor-ek berriki atera duen “Matxin Irabola, Senpereko bertsolaria” (1879-1935); horrela, gure herria gain gainetik ohora-

tzen duten laukote harrigarri bat osaturik dagoela... Laurak ohoretan emanak dira Senpereko ikastolak egin berri duen pareta edo frontoi apainduan.

Arbaso horiek euskararen eta Euskal Herriaren geroaz biziki kezkatuak ziren baina halere esperantzaz beteak etorkizunari buruz! Jakinen ote dugu gizon horien lan ederren eta baikortasun horren behar den bezala ospatzen, haien orhoitzapenetik probetxu bat ateratzen gure mintzaira aberatsaren alde, euskararen erabilpena sustatzeko idatziz, nola ahoz?

Har dezagun beraz fede eta kemen lehengoek utzi dizkiguten lan goresgari eta lekukotasun horietan, Lurraldeetako ahal desberdinak kontutan hartuz, eta beraz urrats desberdinez, gelditzen zaigun bide luzean, indarrak elkartuz joateko, euskara hizkuntza ezagutua eta mintzatua izan dadin Euskal Herri osoan!

Idazkera edo grafia kontuez

Adema-Zaldubiren lan hauek literario alor zabalerat erakarri beharrez ari izan garenaz gero, keinu batzuk egin dira euskara batuari buruz, baina betiere idazleak berak, hitz haiek, han edo hemen, baliatuak bazituen:

—gaiten > **gaitezen** biak erabili ditu eta beraz ‘gaitezen’ ezarri dugu beti, neurtitzetan izan ezik;

—irakusten > **erakusten**;

—bezein > **bezain**;

—bezenbat > **bezainbat**...

Halarik ere, desberdinki dabiltzan forma bakar bat edo bertze, hala-hala utzi ditugu, adibidez: **zein** eta **zoin**, orobat **zenbat** eta **zonbat**, **balin** eta **bal-din** haien berdintzeak, lana itxuralda zezaketelako beldurrez...

Halaber **hola** erakuslea, batzuetan **horrela** bihurtzen duena eta beraz denetan sartzen ahalko zena guk hartu bideari jarraikiz gero. Baina diren bezala utzi ditugu: noiz edo noiz adiera desberdintasun zerbait sendiarazten baitute beharbada.

Diren bezala utzi ditugu ere:

—**ixuri** (isuri);

—**xoila** (soila);

—**gaixto** (gaizto);

—**izaiki** (izaki);

—**nausi** (nagusi);

—**orai** (orain); eta bertze andana bat...

Hek eta **heiek** izenordeak nahasten ditu Adema-Zaldubik. Lehengoek ederki bereizten zituztelarik: ‘hek dire’ eta ‘heiek hura dute’. Halaber **hark**,

harek eta **harrek**; gu ‘erditik’ joan gara hor: **harek**, Iparraldean gehienik zabaldua den formari jarraikiz.

Oraingo grafiari jarraiki gatzazkio >H< hizkiarekin, >R< batzuen ondotikako zenbait utziz halere, Iparraldeko ahoskera errespetatzeko eta ulermenaren laguntzeko:

—**erhokeria**;

—**burhaso** (guraso) nahiz batzuetan ‘buraso’ ere erabiltzen duen;

—**erhi** (behatz), ‘eri’ (gaixorik) erran nahiarekin bereizteko bertzalde;

—**orhoit** (bi >R<-rekilakoa desegokia baitzaigu);

—**elhe**;

—**garhaitu**: batzuetan ‘garraitu’ ere erabiltzen du, desegokia deritzoguna.

—**P** eta **B**-ren aitzinean >N<: dembora > **denbora**...

—**TS**-ren soinua ixarekin adierazten baitzuen idazkirik zaharretan, gaurkotu dugu: ‘exaia’-ren orde **etsaia** emanez.

Halaber:

—**CH**-ren orde **X** ezarri dugu: herrecha > **errex**a... (erraza)

Adinean joan arau, Ademaren idazkera aldatuz joan da euskarak berak egiten zuen bilakaera lagun.

Hala gertatzen da, adibidez, ‘eduki’ aditzean, eta **-agoka**- bihurtu dugu **-auka-**, halaxe agertzen baitzaigu zenbait eskuizkributan ere, hala nola: **naukala**, **daukatenak**, **daukana**... Hori, bistan da, hitz laxoetan, bertsoetako zangoen errespetatzerik ez dagoenean.

Ohargarria gelditzen da **natzaitzue** (‘izan’, indikatiboa, ni-zuei) eta **nazazue** (‘ezan’, inperatiboa, ni-zuek), bezalako formak zein ederki darabiltzan.

—**ken(-)** eta **-kela(-)** ahalak bihurtu ditugu: **-keen(-)** eta **-keela(-)**, bertso zangoen errespetatzerik ez dagoenean, erran gabe doa;

—**ra** eta **-rat**, bi formak erabiltzen zituen, iduriz hiztegi-tako ñabardurarik adierazi gabe: BaionaRA doa (joan-etorria) eta BaionaRAT doa (han egoteko).

Guk **-rat** hobetsi dugu, Iparraldekoagotzat baitaukagu eta Euskaltzaindiko hiztegian ere aurkitzen baita (**nehoRAT**, 325.orrrialdea, 2008ko argitalpenean) euskara baturako ere onartua. Gainerat, ‘hara, norat doan’ eta ‘harat doa’ ederki bereizten direlarik horrelaxe.

Bertze hitz batzuentzat, ohar bat ematen dugu, euskararen ikasten ari direnen lagungarri, indar bertso-koak direla adieraziz, adibidez:

—**ilki**, **jaldi** eta **atera(tu)**;

—**zeroni** eta **zuhaur**;

—**iguzu** eta **emaguzu**, eta abar.

Oro har, uste dugu, haatik, guzien gozamenerako, hizkuntza zabala erabili duela Ademak, bere bihotzaren arabera, honek Euskal Herri guzia besarkatzen baitzuen...

I. liburukia:

“Saindu batzuen biziaz”

Euskaltzaleen Biltzarrak, Senpereko Herriko Etxeak eta Euskaltzaindiak, Adema-Zaldubiren hiltzearen ehungarren urte muga ospatzearen karietarat, Senperen aurkeztua izan da “Saindu batzuen biziaz” deitu liburukia, 2007ko abendoaren 20an. Lehen lan horretan publikatu ditugu Ademaren hamar bat prediku. Ikusiko duzue hor zer artarekin preparatzen zituen bere mintzaldiak! Funtsa eta errateko manera, biak errotik lantzen baitzituen.

Nola egin dugun bada lehenik argitaratu behar zenaren hautua? Gogoeta simple batetik dator: zertako ez publikatu, lehenik, behin ere argitaratuak izan ez diren lan batzuk? Adema-Zaldubiren neurtitzak eta kantikak ezagutuak dira, ikerleen artean bederen, baina Ademaren euskarazko idazki laxoez gauza guti dakigu. Eta prediku hauek parada ederra ematen ziguten preseski Adema-Zaldubiren prosarako jeinua edo dohaina ezagutarazteko.

Dakusagin orain nola sortu diren Adema-Zaldubi prediku horiek; herrietako bestak zirenean usaia zen predikari handi bat ekarraraztea egunari ospe, dirdira gehiago emategatik. Eta Adema horretarako zaletasun handia izaki, gonbidatu zuten zenbait herritarat beren patroin sailduaren goersten laguntzeko. Gisa horretako hamar mintzaldi begiztaturik, haiek ditugu sartu lehenbiziko liburukian, erran dena, Ademaren prosa ezagutarazteko asmoz, hots, euskararekin, hitz laxoz nola jokatzeko erakustegatik. Hori da hautu horren zergati nagusia.

Liburu horretan berean kausi daiteke asko alhapide: batzuek Adema-Zaldubiren literatura gisari behatuz eta hura arakatuz; bertzeek erlijio eta fede begiz gogoetatuz, eta nik dakita bertze zenbatek oraino, zenbat begi motaz, behatuko dioten, alde guzietarik, jorra eta jorra, ariko zaizkiolarik? Halaber izanen da bertze lanekin. Errana dugu sei edo zazpi liburukiren gaia badela haren lan guziak argitaratzen badira.

Aitzin solas gisa ezarri ditugun lerroekin ere, alta, ez da aspertzerik: beha otoi zeinenak diren:

—Andres Urrutia Euskaltzainburuarena, lehenik, zuzen den bezala, Euskaltzaindia denaz gero argitaratzailea. Bere aurkezpenean salatzen digu “Euskaltzainak” liburu sail berri bat hasi dutela eta hain xuxen Adema-Zaldubiren liburu hau izanen dela lehena. Ohore bat gehiago! Argi eta garbi dio bertzalde euskal klasiko bat dugula Zaldubi eta behar-beharrezkoa dela horrelako lanak argitaratzea, irakurle eta ikasle ororen esku uzteko gisan.

Gero datoz lau lekukotasun, hobeagorik ezin baitzitekeen atzeman:

—Jean Hiriart-Urruty ‘zaharra’, bere begiz Adema-Zaldubi ikusi duena pre-

dikatzen, kantatzen bai eta beilak edo erromesaldiak animatzen ere...

—Jean Etchepare, Iparraldeko gure idazle nagusia, Alduden zelarik mediku gazte, ezagutu baitzuen, hark ere, Adema-Zaldubi, hango ur onetan ibilki zelarik osasun bila.

—Piarres Lafitte-k, 1933an egin hitzaldi bat, erdaraz hau, horrela begi keinu ttiki bat egiten dugula, bidenabar, euskararik batere ez dakiten zenbaiti, haiek ere jasta bat bederen izan dezaten gizon honen biziaz eta lanez.

—Laugarren lekukotasuna, Piarres Charrittonena dugu, 1985ekoa, euskaltzain sartu zen urtekoa, bertzeek erranak osatzen ditu xehetasun anitzekin euskara bizi batean miresten dituela Adema-Zaldubiren lanak.

Zer nahi duzue gehiago? Euskaltzainburuaren aurkezpena batetik eta bertetik lau lekukotasun: 20. mende horrek eman ote du, Iparraldean, lau jakintsu horiek baino handiagorik?

Hona beraz hamar prediku horiek, urteko egutegiaren arabera sailkatuak:

Saindu batzuen biziaz		
	Hilabetea eta eguna	Non eginak
Jondoni Bixintxo	01-22	Beskoitze? Hendaia? Uztaritze? Ziburu?
Jondoni Joanes Batista	06-24	Hazparne
Jondoni Petri	06-29	Senpere
Jondoni Juliano	08-02	Ortzaize
Andredena Maria	08-15	Ainhoa? Aldude? Ahurti? Armendaritze? Arnegi? Azkaine? Bardoze? Bidarte, Baiona [Katedrala]? Heleta? Urepele?
Jondoni Zipriano	09-16	Lekorne
Jondoni Martine	11-11	Ahetze? Arroza? Biriatu? Domartiri? Miarritze [St-Martin]? Sara?
“ <i>Que soy era Immaculada Counception</i> ”	12-08	
Santa Luzia	12-13	Atharratze
Jondoni Eztebe	12-26	Baigorri? Donoztiri? Ezpeleta? Makea? Urketa? Zalgize?

2. liburukia:

“Zaldubi: Artzain beltxaren neurtitzak”

Adema-Zaldubiren bigarren liburuki hau Sarako Idazleen Biltzarrean aurkeztua izana da 2009ko apirilaren 13an. “Euskaltzainak”, bildumako 4.a da.

Adema-Zaldubiren lanak argitaratzean ongi iruditu zaigu gaiak aldizkatzeari: batean gai erlijiosoak, bertzean profanoak. Liburu honetako gehienak jadanik noizbait publikatuak izanak dira, baina ez da lan hau, nehola ere, berezitasunik gabea.

“Zaldubi, artzain Beltxaren neurtitzak” berak ezarri tituluarekin dator eta eskuzko lana edo kaligrafia ere erakutsi nahi izan dugu, zehatz-mehatz, koloreak lagun inprimatuz guzia, zinez bikain apaindu baitzituen bere idazkiak eta halako orrialde ttikietan gainerat...

Horra beraz bigarren liburukia dena bertso herrikoiez osatua. Hau bide da Zaldubiren eskuizkriburik ohargarriena. Hemen dauzkagu 32 kantu, orotar 324 neurtitz edo bertsoan. Ohargarrienak hauek zaizkigu:

—“Pilotariak”, 33 bertso, urteak jin urteak joan, beti emendatuz egina;

—“Eskualdunak, Gauden gu Eskualdun” edo ezagutuagoa den “Zazpi Euskal herriek bat egin dezagun”, izenarekin. 25 bertso badira hor eta 1892an kantatu zituzten lehen aldikotz Donibane Lohizuneko “Lore Jokoetan”. Hemen deblauki, Adema-Zaldubik bere abertzaletasuna erakusten digu, abertzale hitza oraino asmatzekoa zelarik.

—“(Biba!) Errepublika”, hau ere hastapenektik emendatua eta emendatzeko gogoarekin! Zeren-eta, 62 bertso badira, baina arteka huts batzuk ere ikusiko dituzue eskuizkribuan eta horiek erran nahi dute, gure ustez, bertze bertso baten sartzeko gogoia zuela oraino hor!!!

Bertso horien izenburua, ‘Errepublika’, baina kantu hauek aurkeztu zituenean, Saran 1876an, ‘Biba Errepublika!’ izendatu zituen. Lan hori aurkeztu zuenean Atharratzen zen erretore nagusi eta orduan gorriekin zituen liskarrek badukete hor oinarririk. Bertso horien artean dugu, bertzeak bertze, gure artean hain ezaguna den ateraldia:

«Liberté Higualité (...) eta Fraternité!

Ai !hiru gezur hoiek egiak balite!»

Gai profanoak ditugu beraz baina badago beti oinarrian gogoeta zuhur bat, orduko kristau erakaspenetarik hurbil dabilena.

Erran dena, ‘artzain’ hitzari atxikia da Adema-Zaldubi. Lan hau bera ere lehenik “Mendiko Artzain beltxaren neurtitzak” deitua baitzuen. Ez da dudarik ‘ardi zaina’ eta Ebanjelioko ‘Artzain ona’ elkarretaratzen dituela hemen nolabait.

Liburuki honetan beraz badituzue bi liburu bederen! Batetik eskuizkribuak osorik, ezin sinetsizko idazkera xehe, fin batean eta eskuz egin letrina aberats batzuekin (*Old English*), hain ontsa eginak non ordenagailuak irakur baititzake; eta guzia beraz, bere jatorrizko margoetan! Bertzetik berriz testu guziak ere hor dituzue, gaurko grafian ezarriak, lerroz lerro.

Hemen agertzen zaigu Adema-Zaldubi bat, fede eta kultura handikoa eta jite aberats bezain xehearekin: biziki maite zituen ixtorio irri egingarriak, bertso jostakinak, ostatu eta mozkor kantuak barne! Gauza seriosenen artetik lañatzeko edo atsedean hartzeko balitz bezala...

Baina oroz gainetik:

- bertso idazle jakintsu bezain zorrotza, zakarra ere berdin batzuetan;
- musikan ere aditua: gehienetan berak ezartzen baitzituen aireak;
- marrazkilaria ere beraz; hots, artista oso baten lana!

Poetak erran dezake Zuberoako ingurumen miresgarria sorkuntzaren pizle gertatu zitzaiokeela, lan hauetarik gehienak handik igorri zituenaz gero. Psikologoak aldiz bilatuko du ea Atharratzeko auzapez gorriarekin izan dituen liskarrak (hain xuxen III. Errepublika laizista eta antiklerikalaren garaietan baikaudé hor, erdiz erdi...) eta beharbada sorterritik urruntzeak pizten dituen beharrak izan bide direla gure bertso idazle handiaren gogoak latzaile...

Aitzin solas gisa atxiki ditugu lehen liburuko haiek berak hain dira argiak eta hunkigarriak eta jadanik aipatuak ditugunak: Andres Urrutia Euskaltzainburua (1954) argitaratzailea, baina ere Jean Hiriart-Urruty ‘zaharra’ (1859-1915), Jean Etchepare ‘medikua’ (1877-1935), Piarres Lafitte (1901-1985) eta Piarres Charritton (1921).

Hasteko eta bat Zaldubik ederki abestu zuen “Zazpi Euskal herriek bat egin dezagun!” Haren baikortasunak bero gaitzala orain ere guziak eta susta lanari jarraikitzerat euskararen eta Herriaren alde.

Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak	
	Nondik idatzi zituen
Ohore laborantzari Axeria eta akerra (1850 inguruan) Kuia eta ezkurra (1850 inguruan) Martin eta Katalin (1851) Ameriketarako bidean (1854) Otsoa eta xakurra Gatua eta arratoinak Haitza eta ihia	Apezgai zelarik edo Larresorotik (1850-1854)
Hitzuntzi (1857) Pilotariak (1857-1890)	Hazparnetik (1854-1860)
Xuriko (Mehetegiko xakurra) (1867) Asto bat errelekiekin (1864) Abereak izurritearekin (1866) Aita biltzaileari seme barreiari (1865)	Bidarraitik (1860-1872)
Amaxo (1879) Mende jende mendre (1882) Pattin dirudun ez fededun (1880) Bildotsa eta otsoa (1873) (lehen saria) Belea eta axeria (1873) (lehen saria) Hartz bat eta bi ihiztari (1876) Hartz pereka latz (1882) Burdina eta baxera (1879) Beharraren indarra (1882) Otsoa eta amiamokoa (1887) Pello ikazkina (1889) Erleak eta liztorrak (1887) Elhez ez, nahiz biz (1888) Bettirisants (1875) (“Utsalegi” izenpeturik) (Biba) Errepublika (!) (1876)	Atharratzetik (1872-1890)
Eskualdunak (1892) Gauden gu Eskualdun (1893)	Baionatik (1890-1907)

3. liburukia:

“Kantikak”

“Euskaltzainak” bildumako 10.a. Badira hor egundainokotan 26 eliza kantu, 260 bertsoekin. Arrakastatsuenak dirateke:

—“Oi Gurutzea” oraino ere kantatzen dena Ortzirale Sainduz (girstinoarentzat urteko egunik sakratuena) eta ehorzketa batzuetan;

—“Adora dezagun”: beti kantatzen dena, Gorputz Sainduaren edo Bestaberritako kantu berezia baina bertze asko karietarat ere eman daitekeen kantika guziz maitatua;

—“Amodio, Ohore”: Ama Birjinari buruzko kantu zoragarria, oraino ere Lurdeko edozein biltzarretan edo Andredena Marietan ematen dena, maitasun handiz;

—“Uholde baten pare”. Hau ez dugu gehiago kantatzen: hitz batzuk ez omen dira gaurko teologiari doazkionak. Baina kantika hau izan da, menturaz, bere aire miresgarria lagun, Ademaren arrakastatsuenetarik bat euskaldunen artean. Airea ez da galdu haatik bertze kantika batzuk idatzi baitituzte doinu horren ganean, bertzeak bertze, ‘Kristo Jauna piztu da’.

Azpitarratu behar da ere Santa Grazi sainduari Adema bota zizkion 31 bertsoak!!!

Baina harrigarria gelditzen dena da oraino ere gaurko ontzat ekarriak direla Ademaren kantika batzuk, ehun eta zenbait urteren buruan! Erdarazko elizkizunetan ba ote da bihirik, adin horretakorik, oraino ere kantatzen denik elizetan?

Eta gero gazte batzuk etorriko zaizkigu dena kritika: Adema integrista zela eta holako. Adema bere denborako gizona dela ez da dudarik baina haren ikuspegi batzuek, bertzeak bertze kantika eta bertso batzuen bitartez, egungo egunean oraino ontzat baldin badauzkagu, miresten ahal dugu Adema! Ez dakit jorratzaile horien gaurko iritziek horrenbertze iraunen dutenez...

“Kantikak” eskuizkribu bilduma hau ez da lan bukatu bat. Ikusten dira bereziki partitura batzuk betetzekoak, marraz doi-doia eginak haatik horrek erran nahi bailuke gogoaz bazukeela aire edo doinuen paratzeko ere. Ikus [20] [62] [68] [74] [86] [98] eta [114] zenbakietan.

Eskuizkribuko orrialde neurria ere aitzinekoarena baino handiagoa dugu: 20zm x 13zm. “Artzain beltzaren neurtitzak” deituan aise ttikiago ibili zen: 12,7zm x 8,5zm!

Bereziki bilduman dagoen azken kantika, “Eguberri”, ez du bururatu ahal izan eta hunkigarri zaiguna da, abenduaren 10ean zendu zenean, Eguberri

bezperan kasik, “Eguberri” kantika lantzen ari zela! Zerk erranarazten digun xehetasun hori? Piarres Lafittek salatzen digu azkeneraino lanean ari izan dela: “*La mort surprit l’ouvrier en plein travail*” eta haren eskuizkribu guziak begiztatu ondoan hau da, itxura guzien arabera, haren azkeneko lana.

“Eguberri” kantika hori ezagutua zen beraz eta publikatua ere bertze haren lan asko bezala eta galdatuko duzue beharbada zertako ari zen lan horien berriz eskuz idazten horrelako artarekin gainerat?

Bi ihardespen ikusiko nituzke. Maite zituzkeela itsutuki bere euskarazko lanak, haien txukuntzea, eta maite denarekin ez dela aspertzen... Ez zutena jadanik, bizi zelarik, arrakasta handia bildua zenbaitek? Gero, beharbada, xuxenketa edo osaketa zerbait ekarri beharrez ere ari izan da: haren lanetan bi edo hiru kopia atzematea, aldaketa ttipi-ttipi batzuk egiteagatik, ez da batere gauza arraroa... Horren lekuko ikus San Bernat eta San Bernardo kantikak.

Aitzin solas gisa atxiki ditugu lehen bi liburukietako berak: Andres Urrutia Euskaltzainburua (1954) zuzen den bezala, baina ere, Jean Hiriart-Urruty ‘zaharra’ (1859-1915), Jean Etchepare ‘medikua’ (1877-1935), Piarres Lafitte (1901-1985) eta Piarres Charritton (1921).

Kantikak	
Bada Jainko bat	Uholde baten pare
Trinitate Saindua	San Josep
Aingeruak	Jondoni Petri
Munduaren hastea	San Frantses Asisekoa
eta gure lehen burhasoak	San Bernat/ San Bernardo
Inkarnazioea	Santa Engrazi/ Santa Grazi
Jesusen bizia	Sarrantzeko Andredena Maria
Adora dezagun	Betharrameko Andredena Mariari
Andredena Mariari	Oi Gurutzea
Amodio, ohore	Izar distiranta
Lurderat heltzean	Aita Sainduari
Harpe Sainduaren aintzinean	Eguberri (Gau min huntan)
	Apez soberanoa

4. liburukia (eskuartean duzuna):

“Prediku zenbait” Hazparnen eginak (1854-1860)

‘Euskaltzainak’ bildumako 12.a. Hitz bat bakarrik, prediku horien funtsaz. Orduko Eliza katolikoaren ikuspegiak ditugu hor euskaldundurik pape-rean garbi-garbia idatziak. Denbora bateko lekukotasun bikainak dira gisa guziz. Baten batek gogorak ere kausi ditzake, hala baitira zenbait gaurko begiz behatzen badiegu, nahiz, erlijioaren kontra idazten zutenak edo dute-nak ez diren batere goxokiago ari...

Giristino batzuek erran liezagukete berdin erlijioaren kontrakoei bazka ematen ari garela horrelako hitz gogorak publikatuz... Hala gerta baledi, jakin bedi ez zela hori gure xedeetan, den gutienik ere!

Guziz interesgarria zaiguna da ikustea nola jokatu zuen Adema-Zaldubik orduko jendearen giristino fedean finkatzeko, hori baitzen haren xede nagusia, ez haatik bakarra: garbiki ageri baita prediku hauetan fede horren sustatzeko euskararen ahal guziak baliatu nahi izan zituela, gaia bezainbat mintzaira errotik landuz, eta beraz euskara indartuz, hari balioa ematerakoan.

Prediku zenbait
[Eguberri: Jesusen sortzea]
[Jesusen izen saindua]
[Katixima jakin behar]
[Haurren giristinoki altxatzea]
[Haurren irakaskuntza eta hezkuntza]
[Lehen Jaun-hartzea edo komunioea]
[Trinitate Saindua]
[Mihi zikinak]
[Oraiko giristinoen lazakeria]
[Fedea ahuldu Frantziako Iraultzaren ondorioz]
[Euskaldunen fedea histen ari]
[Debozioea]
[Herio eta heriotze]

5. liburukia (eskuartean duzuna):

“Alegiak eta bertze neurtitzak”

Adema-Zaldubiren bortzgarren liburuki honetako eskuizkribuak, bi zati nagusitan paratu ditugu:

—lehenik, bere-bereak diren alegiak eta bertsoak, “Ene loreak”, berak eman izenburu batekin;

—gero, bertze bertso-gile batzuen baitan hauteman zituenak [**Bertze batzuen lorategietan bilduak**] guhaurk asmatu titulupean.

Ohar gaitezen, haatik, bigarren zatiko bertso horietarik zenbait bederen —“Ikazkinaren mandoa”-tik aitzina doazenak bereziki— lehen zatikoak baino zaharragoak izan daitezkeela...

Liburuki honen ekarpen berezia dukegu: “*La Fontaine*” frantses idazle guziz ospetsuaren alegia batzuen euskarazko itzulpena: lan horretan lehenetarik izan baitzen eta, beti bezala, axala eta mamia landu baitzituen, kaligrafia miresgarri batean idatziz gainerat.

Azpmarratu behar dugu ez garelako hemen hitzez hitz eginikako itzulpen batekin; soilik alegiaren ideia eta protagonisten izenak atxiki ditu, erakaspen bera helburu.

Alegia horiek, eta bertze batzuk, bertsoan ere jarri zituen. Ikus gorago aipatu eta jadanik argitaratu lanean: “Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak”.

Baina, oroz gainetik beharbada, liburuki honetako orrialdeak hain ederki apainduz, agerian gelditzen da euskararentzat zuen maitasun mugagabea.

Baieztazen dira ere gizon horren bi aldeak: eliza kantikolari kartsua, Euskal Herriaren goresle beroa, lehen liburukietan jadanik ikusi dugun bezala, batetik eta bertzetik ostatu kantu xumeenen maitalea, serio-sagoko haien arte-tik lasaitzeko balitz bezala...

Ez zituen bada baztertu kantu hunkigarriak ere: hain amultsuki idatzi baitzituen Camoussarry, gazterik hilen den apezaren auhen bihotz erdiragarriak.

Ohar gaitezen ere mugaz bertzaldeko bertsoei hemen ematen dien behakoa. Idazkera, haatik naski, lerratu bide zaio, noiztenka, bere usaiako ortografiar, edozein idazleri hain errexki gertatzen zaigun bezalaxe...

Orain goza ezazue haren lana: lehenik begiz, xehetasunak hautemanetz —letren apaindurak, marrazkiak...— barnean daukana hobeki sentitzeko. Eta guziei, on dagizuela!

2010ko urrian. Henri Duhau

Alegiak eta bertze neurtitzak	
Ene loreak	<p>Belea eta Axeria Kuia eta Ezkurra Akerra eta Axeria Abereak izurritearekin Otsoa eta Bildotsa Axeria, Otsoa eta Zaldia Dupina eta Eltzea Betirisants [1846] Betirisants [bigarren bertsioa] Denboraz Moro-Sarasinen eta Eskualdunen artean gertaturikako gudu batez Eskualdunaren omore oneko kanta Eskualdunen omore txarreko kanta Primadera Zumalakarregi Andredena Mariari Zeruko Erreginari Aita Saindu, fedezko gauzetan ezin tronpa daite[kee]nari [Pilotari gazteak] [Chesnelong Jaunari] [Murde Diharassarry-ri] [Bidarrain nintzelarik] [Ene auzotegian bi senar emazte]</p>
[Bertze batzuen lorategietan bilduak]	<p>Zaldi zahar baten gainean Hiltzeko menean [den] gizon gazte baten gogoetak Zumalakarregi Alexisen heriotzearen gaineko bi artzainen solasak Lehen Errepublikako denboran egin zen besta baten gainean Bare baten gainean Eri baten gogoetak Eri baten liraren auhenak Ikazkinaren mandoa [Ezkerraren zamaria] [Solbezio arratsaldian, Arnegin, etxe batian] [Zer egin zare koplari zaharra?]</p>

– I –

Gratien Adema-Zaldubi (1828-1907)

Alegiak eta bertze neurtitzak

ENE LOREAK

Gratien ADEMA
"Zaldubi"
(1828-1907)



Ene loreak

ENE LOREAK.



Belea eta Acheria.

Wairu baten gainean juan den abendoan,
Bele bat bazagon gasna bat mokoan.
Acheri zahar bat dena amarrua,
Gasmaren usainaz bihotza pichtua,
Badoha lasterca bolearen gana.
A spaldion ez cen jana ez edana!
Waren tripa zolac phentsa cet cioen;
Wairu egun hartan baruric zagoen!!!
Wairuaren azpirat hurbildu denean,
Kohorikatean da humilki lurrean,

ENE LOREAK

Belea eta Axeria ⁽¹⁾

Haritz baten gainean, joan den abendoan,
Bele bat bazagon gasna bat mokoan.
Axeri zahar bat dena amarrua ⁽²⁾,
Gasnaren usainaz bihotza pixtua ⁽³⁾,
Badoha lasterka belearen gana.
Aspaldian ez zen jana, ez edana!
Haren tripa zolak pentsa zer zioen,
Hiru egun hartan barurik zagoen!!!
Haritzaren azpirat hurbildu denean,
Kokorikatzen ⁽⁴⁾ da umilki lurrean,

(1) azeria

(2) maltzurra

(3) piztua, erran nahi xorrotx batekin

(4) "s'accroupir à la turque"

Eta aire malxo bat duclario hartzen,
 Boz ezli batetik hasten da mintzatzen.
 - « Salutatzen zaitut, oi murde Belea! »
 Hegastin gucien nausi erregia!
 Trusarican gabe, Bele ospatua,
 hurre puchantziac nauka zoratuia.
 Ez dut iste baden munduan gauzaric
 zure luma baino distirantagoric.
 Edertasun hori ez dut ez dudaten
 hurre bozeraino dugula hedatzen.
 Othoi jauna zure zerbitzariari
 jakinaraz yozu cein zaren kantari..... »
 - Ucheriac hitz hoik erraitcarokin,
 Bet betan Belea bozkarioekin
 Mokoia largatuz hasten da kantatzen,
 Baiman bere gasna hor zaio erortzen!
 Bertceric ez zuen nahi acheriac.
 Altxabatzen du gasna, arinduz begiac,
 Eta ikusiric nigarrez belea
 Oihuz hasten zaio gasnaren jalea
 - « Hauche jakin, pazu orai nere ganic
 Ez da entzun behar lausengatzailec,
 Coen haina heiec abilac badire
 Aditzailearen gostuz bici dire » -
 Beleac orduan bai urrikirekin,
 Hitz emaiten dio, juramenturakin,

Belea eta Axeria

Eta aire maltso bat duelarik hartzen,
 Boz ezti batekin hasten da mintzatzen :
 “Agurtzen zaitut oi Murde Belea ⁽¹⁾!
 Hegaztin guzien nausi erregea!
 Trufarikan gabe, bele ospatua,
 Zure puxantziak nauka zoratua.
 Ez dut uste baden munduan gauzarik
 Zure luma baino distirantagorik
 Edertasun hori ez dut ez dudatzen
 Zure bozeraino duzula hedatzen.
 Otoi Jauna zure zerbitzariari
 Jakinaraz zozu ⁽²⁾ zein zaren kantari...”
 Axeriak hitz horiek erraitearekin,
 Bet-betan belea bozkariorekin
 Mokoa largatuz hasten da kantatzen,
 Bainan bere gasna hor zaio erortzen!
 Bertzerik ez zuen nahi axeriak.
 Altxatzen du gasna arinduz ⁽³⁾ begiak,
 Eta ikusirik nigarrez belea,
 Oihuz hasten zaio gasnaren jalea:
 “Hauxe jakin zazu orai nere ganik
 Ez da entzun behar lausengatzailerik,
 Ezen haina heiek ⁽⁴⁾ abilak badire
 Aditzailearen gostuz bizi dire...”
 Beleak orduan bai urrikirekin,
 Hitzemaiten dio juramenturekin,

⁽¹⁾ Jaun Bele(a)

⁽²⁾ iezaiozu

⁽³⁾ ?

⁽⁴⁾ ezen diren bezalako [≈ gaizto] haiek

Ethorkizunear jakinen duela,
 Enganatzailen aditzen bertela.
 Botu egin zuen, bairnar berantcheji.
 - Gaichtoen erronac ez detzagun segi. -



Khuia eta Bezerra.

Behin demora bat suphera delarik,
 Bettiri kallapu onza bazcalduric,
 Drankilki zabilan bazterren ikusten,
 Ezen errecolta hasia cen ontzen.
 Etotho quicietan ibili demean.
 Bettiri jartzen da pentoka batean.
 Handie dagolaric beira ostara
 Khuia bat hor zaiu agertzen bichtara.
 Bere orhoitean hain Khuia handiric.
 Ez zuen ikusi oraino Bettiric.
 Haren alderaino delaric hubiltzen,
 Lunetac emanic dio begiratzen.

Belea eta Axeria

Etorkizunean jakinen duela,
Enganatzaileen aditzen bertzela.
Botu egin zuen bainan berantxegi.
Gaixtoen erranak ez detzagun segi...

Kuia eta Ezkurra

Behin denbora bat superra zelarik,
Bettiri Kallapu ontsa bazkaldurik,
Trankilki zabilan bazterren ikusten,
Ezen errekolta hasia zen ontzen.
Zoko guzietan ibili denean,
Bettiri jartzen da pentoka ⁽¹⁾ batean:
Handik dagolarik begira orotara,
Kuia bat hor zaio agertzen bixtara:
Bere orhoitean hain kuia handirik,
Ez zuen ikusi oraino Bettirik.
Haren alderaino delarik hurbiltzen,
Lunetak emanik dio begiratzen.

⁽¹⁾ ≈ bezoin, mullo

Eta iraiten du jokha lezakela,
 Khuia haren karga bi kintal badela.
 Bainan hor gauza bat zaiu gogoratzen,
 Eta huna nola hasten den mintzatzen.
 — « Holaco khuiaric, behar duz aithortu,
 Ez zaut behinere bichtarat agertu;
 Bainan nic seguric halari can ere
 Ez diot causitzen plantaric batera.
 Wauche da khuiaren aldachka mendrea!
 Damurik ez nintzen horren egilea!
 Nic ez nuen hola lurrean etzanean.
 Planta gehichago nioen emanen.
 Solaco fruitu halaco arbola!
 Eien khuia hori ez da ongi hola.
 Gauza pisu eta alomale hori
 Nic emanen nion hobetti haitzari.
 Ez zuten hezkurric haitzec ettharico;
 Khuia hondotatu ciren etthorico.
 Lur huntaco gauza guciac orduan
 Kausitaco ciren behar den lekhuari... »
 — « Horra cer zarasan Bettiri sabantac,
 Horra cetsu ciren haren gogostac.
 Badoha handican haichtegi balera,
 Wango itzalean aphur bat jartzera.
 Soropil freskoan etzana delaric,
 Hor loakharteen da uste gabetaric.

Kuia eta Ezkurra

Eta erraiten du joka lezakela ⁽¹⁾,
Kuia haren karga bi kintal badela.
Bainan hor gauza bat zaio gogoratzen,
Eta huna nola hasten den mintzatzen:
“Holako kuiarik, behar dut aitortu,
Ez zait behin ere bixtarat agertu.
Bainan nik segurik, halarikan ere,
Ez diot kausitzen plantarik batere.
Hauxe da kuiaren aldaxka ⁽²⁾ mendrea!
Damuraik ez nintzen horren egilea!
Nik ez nuen hola lurrean etzanen,
Planta gehixago nion emanen.
Nolako fruitu, halako arbola!
Ezen kuia hori ez da ongi hola.
Gauza pisu eta alimale hori
Nik emanen nion hobeki haritzari,
Ez zuten ezkurrik haritzek ekarriko;
Kuia ondoetan ziren etorriko;
Lur huntako gauza guziak orduan,
Kausituko ziren behar den lekuan...”
Horra zer zerasan Bettiri sabantak,
Horra zertsu ziren haren gogoetak.
Badoha handikan hariztegi batera,
Hango itzalean apur bat jartzera.
Sorhopil freskoan etzana delarik,
Hor lokartzen da ustegabetarik.

⁽¹⁾ paria(tu) lezakeela, desafia(tu) lezakeela

⁽²⁾ kuia atxikitzen duen aihena

Noiz ere zurrungan baita abiatcen,
 Sudurrerat zais hezkur bat erortcen!
 Atzartzen delaric orduan berean,
 Kausitcen du beraz aho bazterrean
 Hezkurra haitzetis harat eroria,
 Eta ferecatcen hars egin Kolpita.
 — «Ni mila sorgina! dio bere baitkan,
 Kruia handi harrec cer eginen zautan
 Erori balitzait hezkurra bezala?...
 Zastataco nuen belhico itzala....
 Horra beraz ene aichtico kontuac,
 Eia onac ciron laster frogatuac.
 Zauingoica baino abelago nintzen!
 Norc dugun arrozoin orai dut ikusten...»



Akherra eta Acheria.

Behin acheri bat bidian zabilan
 Koita bortz urtheco akher batetilan.

Kuia eta Ezkurra

Noiz ere zurrungan ⁽¹⁾ baita abiatzen,
Sudurrerat zaio ezkur bat erortzen!
Atzartzen delarik orduan berean,
Kausitzen du beraz aho bazterrean
Ezkurra haritzetik harat eroria,
Eta ferekatzen hark egin kolpea:
“Ai mila sorgin!, dio bere baitan,
Kuia handi harek zer egingen zautan
Erori balitzait ezkurra bezala?
Jastatuko nuen betiko itzala!
Horra beraz nere aixtiko ⁽²⁾ kontuak,
Eia onak ziren laster frogatuak.
Jaungoikoa baino abilago nintzen!
Nork duen arrazoin orai dut ikusten...”

Akerra eta Axeria ⁽³⁾

Behin axeri bat bidean zabilan
Hoigoitabortz urteko akera batekilan.

⁽¹⁾ lo sakonean, hatsa hartzen entzuten delarik

⁽²⁾ arestiko

⁽³⁾ azeria

Croc badaukite cor don acheria,
 Bere izateaz amarruz belhia;
 Bainan hala hala, enustoz seguric,
 Ez dauca alkerrac haren itohurarie.
 Cihanpe batean sarthu direnian,
 Jartzen dire biac haitez baten aspian.
 - « Egarrri nauke, dio acheri zaharrac »
 - « Bai eta ni ere, harrunkaz alkerrac. »
 - « Ura ez duc urrun, dio acheriac,
 « Cithoka hortara jauts gaitecen biac »
 Biz jakiru saltoz jausten dire beraz...
 Iziz ere baitire ase hango uraz
 Acheriac dio bere lagunari:
 - « Apsa aichkidea lotu gaiten bidiani. »
 - Bainan hitz horiec erraitcarakin,
 Hor chartzen dire biac elgarrekin,
 Cithoke parota zulegi dutela,
 Eta lekhu tcharrian sarthuac direla.
 Juan alde batera, juan bertan aldera,
 Handie ez ditozke mihola athera.
 Alkhorra jadanie dena uzkurtua,
 Zetho balian dago nigarrez urthua.
 Demora berean murde acheriac
 Buruan dabilzka beru jukutriac.
 Cebeit azkenetoz zais gogoratzen,
 Eta Alkhorari hasten da mintzalten:

Akerra eta Axeria

Orok badakite zer den axeria,
 Bere izaitez amarruz ⁽¹⁾ betia;
 Bainan hala-hala ⁽²⁾, ene ustez segurik,
 Ez dauka akerrak haren itxurarik.
 Oihanpe batean sartu direnian,
 Jartzen dire biak haritz baten azpian.
 “Egarri nauk”, dio axeri zaharrek
 “Bai eta ni ere” karrunkaz ⁽³⁾ akerrak.
 “Ura ez duk urrun, dio axeriak,
 Ziloka hortara jauts gaiten biak.”
 Bizpahiru saltoz jausten dire beraz...
 Noiz ere baitire ase hango uraz
 Axeriak dio bere lagunari:
 “Asa ⁽⁴⁾ adixkidea lot gaiten bideari!”
 Bainan hitz horiek erraitearekin,
 Hor ohartzen dire biak elgarrekin,
 Ziloko pareta zutegi dutela,
 Eta leku txarrean sartuak direla.
 Joan alde batera, joan bertze aldera,
 Handik ez daitezke nehola atera.
 Akerra jadanik dena uzkurtua,
 Zoko batean dago nigarrez urtua.
 Denbora berean Murde Axeriak
 Buruan dabilzka ⁽⁵⁾ bere jukutriak.
 Zerbait azkenekotz zaio gogoratzen,
 Eta akerrari hasten da mintzatzen:

(1) ≈ maltzurkeriaz

(2) aldiz

(3) orro gisa bat?

(4) animalien sustatzeko oihu bat bezala

(5) darabiltza

— «Fit zac to: ez gaitue oraino galduac:
 Utz zatzik nigarrac utz zatzik pleinuac:
 Craiche berean jen zaitaki gogora,
 Nola behar dugun athera campora.
 Paretaen contra eman hadi chutic,
 Gero iganen nauk hie bizkarretic,
 Buruan ditucan adar hoietara,
 Eta hetan gaindi ichtkina hartara.
 Bertola nekhatciac deus ez die balio.»
 — «Kherac orduan ihardesten dio:
 — «Biba hi laguna asmu hoietaco!
 Xore sikan hie beicit hori phentsatico?
 Ez due herri hautan hie parecoric!
 «Hirekin ibiliz ez nagoz galduric!»
 — «Gudo atheria chut chuta da jartcen,
 Eta Kheria campora da helcen.
 Bainan hor Kheria laguna galduric,
 Cithoan da bera gelditcen bakharic.
 Oihu iten dio bere lagunari:
 Bainan Kheria ez da kasu hari.
 Akher gaizo harre beritiz du othoitzen
 Bainan aheriac dio ihardesten:
 — «Uti tonto bisia! ez haktien nasti,
 Horrat thortcea ez zuskala asti?
 Certako jaustean ez hintzen orhoite,
 Nola behar hintzen hortie atheratu?»

Akerra eta Axeria

“Adizak ⁽¹⁾ to, ez gaituk oraino galduak:
Utztatik ⁽²⁾ nigarrak, utztatik pleinuak,
Oraixe berean jin zaitak gogora,
Nola behar dugun atera kanpora.
Paretaren kontra eman hadi xutik,
Gero iganen nauk hire bizkarretik,
Buruan ditukan adar horietara,
Eta hetan gaindi izkina hartara.
Bertzela nekatzeak deus ez dik balio.”
Akerrak orduan ihardesten dio:
“Biba hi laguna, asmu horietako!
Nork zian hik baizik hori pentsatuko?
Ez duk herri hautan hire parekorik!
Hirekin ibiliz ez nagok galdurik?”
Agudo ⁽³⁾ akerra da xut-xuta jartzen,
Eta axeria kanpora da heltzen.
Bainan hor akerra laguna galdurik,
Ziloan da bera gelditzen bakarrik.
Oihu egiten dio bere lagunari;
Bainan axeria ez da kasu hari.
Aker gaizo harek berriz du otoizten
Bainan axeriak dio ihardesten:
“Ai, tonto bisaia! Ez hakien naski,
Horrat etortzea ez zukala ⁽⁴⁾ aski?
Zertako jaustean ez hintzen orhoitu,
Nola behar hintzen hortik ateratu?”

⁽¹⁾ adi ezak

⁽²⁾ utz itzak

⁽³⁾ langilea, xintxoa

⁽⁴⁾ ez zela, toka

Orai plazer baduc in zaki nahukana,
 Adios ni banuac bethharric aintzina. »...
 == Cerbeit gauza egin behar dugunean,
 Orhoit gaiten bethi hasi aintzinean,
 Nola behar dugun hura atxabatua,
 Nahi ez bagare onduan urrikitu. ==



Abreac izuritearekin.

Gaitz gucietan den izigarriena,
 Niphalzeaz beraz lasten gaitzuna.
 Gaitz bat ifernucio leicotic sortua,
 Behin lothuz geroz egin khasatua,
 Izuritea cen behin abiatu.
 Eta orotarvat laster barraiatu.
 Hiriac, herriac, celhaiac, mendiac
 Gorphutz hilez ciren oro estaliac.....
Aspaldi mendietan  
Urtu da elurra  
Eta errepiretan <sup>(1)</sup>  
Beztitu da lurra  
Orai dire betetzen  
Bazterrak loreez  
Orai dire estaltzen  
Arbolak hostoez.

---

<sup>(1)</sup> pentze lauak behere guneetan

Hasi dire jostatzen,  
 Bildoxac landetan,  
 Baita ere agertzen  
 Inharac airetan,  
 Hec elhortcearekin  
 Akhabo nequa.  
 Baita ere harekin  
 Inpazter yokhua.

Cor da ederragoric  
 Primadera baino?  
 Cor atseginagoric  
 Sasoin hori baino?  
 Thalaciuac cor dire  
 Beren urcekin?  
 Komparatzen badire  
 Gure bazterekin?

Sasoin maithagarria.  
 Akhor gure gana!  
 Hec oi laboraria,  
 Has zac hire lana!

## Primadera

Hasi dire jostatzen  
Bildotsak landetan  
Bai-ta ere agertzen  
Ainarak airetan  
Hek etortzearekin  
Akabo negua  
Bai-ta ere harekin  
Supazter zokua.

Zer da ederragorik  
Primadera baino?  
Zer atseginagorik  
Sasoin hori baino?  
Palaziuak zer dire  
Beren urreekin?  
Konparatzen badire  
Gure bazterrekin?

Sasoin maitagarria  
Hator gure gana <sup>(1)</sup>!  
Hik oi laboraria  
Has zak <sup>(2)</sup> hire lana!

---

<sup>(1)</sup> hator gureganat!

<sup>(2)</sup> has ezak

Oi errechioleta  
Laster agor hadi,  
Goizetan hira canta  
Mdiaraz bedi.

Nondie dire ebhortcen  
Ntsegin plazerac,  
Noro daizkigu egortcen  
Ulda primaderac.  
Orhoit hadi gizona,  
Haiceno munduan  
Zainco bat quixiz ona  
Badela zeruan!



## Primadera

Oi errexinoleta <sup>(1)</sup>  
Laster ager hadi  
Goizetan hire kanta  
Adiaraz bedi.

Nondik dire etortzen  
Atsegin plazerak  
Nork dauzkigu <sup>(2)</sup> igortzen  
Uda-primaderak?  
Orhoit hadi gizona  
Haizeno munduan  
Jainko bat guziz ona  
Badela zeruan!

---

<sup>(1)</sup> *le rossignol*

<sup>(2)</sup> dizkigu



## Zumalacarregi.

Orai kanta dezagun  
 Oi lagun mailiac,  
 Orai altcha detzagun  
 Gerlari handiac;  
 Escualdun guciac guri beitetz segi  
 Kantatceco balcan Zumalacarregi!

Kura duce Escualdunen  
 Gerlaco nausia,  
 Etsaiic borthitzenen  
 Beldurric gabia,  
 Seculan harmadaric ez duce puchantegi  
 Partida duenean Zumalacarregi.

Norc lezate guduan  
 Idur haren kharra,  
 Suntsitean duenean  
 Etsaien indarra?  
 Dousee haren tropac ez detz age moqi,  
 Ezen heickin da Zumalacarregi.

## Zumalakarregi

Orai kanta dezagun  
Oi lagun maitiak  
Orai altxa detzagun  
Gerlari handiak  
Eskualdun guziak bai guri beitez <sup>(1)</sup> segi  
Kantatzeko baltsan [guk] Zumalakarregi!

Hura duk eskualdunen  
Gerlako nausia  
Etsairik bortitzenen  
Beldurrik gabia  
Sekulan armadarik ez duk puxantegi  
Partida duenean Zumalakarregi.

Nork lezake guduan  
Iduk <sup>(2)</sup> haren karra  
Suntsitzen duenean  
Etsaien indarra?  
Deusek haren tropak <sup>(3)</sup> ez detzake mugi  
Ezen heiekin baita Zumalakarregi.

---

(1) bitez

(2) atxik

(3) "gizonak", hobeki litzaiguke silaba kopuruagatik

Choilki haren itzala  
 Cenean agertzen,  
 Etsaiac berehala  
 Ciren kharatsen;

Sintcina juaitera ez ciren zilhegi  
 Bidean cenean humalacarregi.

Nola baita chimichta  
 Ziltcan ceruan  
 Kala haren ezpata  
 Dabila guduan

Dous Escualdunarentzat ez da haz carregi  
 Berentkin duteno humalacarregi

Gure gerlariaren  
 Beon aiphatua,  
 Ez duc ez auzkhituren  
 Secular galdua;

Secular ez dugu erranen goregi:  
 Biba beraz biba humalacarregi!



## Zumalakarregi

Xoilki haren itzala  
Zenean agertzen  
Etsaiak berehala  
Ziren ikaratzen  
Aintzina joaitera ez ziren zilegi  
Bidean zutenean Zumalakarregi.

Nola baita ximixta  
Ibiltzen zeruan  
Hala haren ezpata  
Dabila guduan  
Deus eskualdunarentzat ez da azkarregi  
Berekin daukateno Zumalakarregi.

Gure gerlariaren  
Izen aipatua  
Ez duk ez aurkituren  
Sekulan galdua  
Sekulan ez diagu <sup>(1)</sup> erranen goregi  
Biba beraz biba [zu] Zumalakarregi!

---

<sup>(1)</sup> dugu, toka

## Andre dena Mariai.

A  
Uzar distiranta,  
Jaunaren lilia,  
Birjina puchanta,  
Figur Maria.

Cuzare Jesusen  
Amadehatsua,  
Cu behhatoeren  
Ihes lekhuua.

Iuzare Sainduen  
Atsegin gozoa,  
Eta aingeruen  
Bozkarica.

Irac gaitutzuharteen,  
Cura besoetan:  
Garecan sarteen  
Hiririkuetan.

## Andredena Mariari

Izar distiranta  
Jaunaren lilia  
Birjina puxanta <sup>(1)</sup>  
Agur Maria!

Zu zare Jesusen  
Ama dohatsua  
Zu bekatoreen  
Ihes lekua.

Zu zare sainduen  
Atsegin gozoa  
Eta aingeruen  
Bozkarioa.

Zuk gaitutzu hartzen  
Zure besoetan  
Garenean sartzen  
Irriskueta.

---

<sup>(1)</sup> guziz ahaltsua, boteretsua

Othoi adi zatzu  
Kristauen othoitzac.  
Othoi argi zatzu  
Gure bihoitzac.

Zu zare gracien  
Kanal Jaincozkoa,  
Zure haur yucien  
Prartecoa.

Bizjina Jaindua  
Zato gure lagun,  
Zurekin mundua  
Bentzu dezagun.

Oren laggarria  
Ehortzen denear.  
Kaude o Maria  
Gure aldean.

Zuc gida gaitzatzu  
Gure jufeari  
Zuc junta gaitzatzu  
Jesus onari.

¶

## Andredena Mariari

Otoi adi zatzu <sup>(1)</sup>  
Kristauen otoitzak  
Otoi argi zatzu  
Gure bihotzak.

Zu zare grazien  
Kanal jainkozkoa  
Zure haur guzien  
Arartekoa.

Birjina Saindua  
Zato gure lagun  
Zurekin mundua  
Bentzu dezagun.

Oren lazgarria  
Etortzen denean  
Zaude O Maria  
Gure aldean.

Zuk gida gaitzatzu  
Gure jujeari  
Zuk junta gaitzatzu  
Jesus onari.

---

<sup>(1)</sup> adi itzazu



## Ceruco erreginari ~

Kanta dezagun betan  
Birjina Maria,  
Ceruco tronuetan  
Lorios jarria!

Dotzagun Mariari  
Hel gure bihotzaz,  
Pingeruen bozeri  
Zunta gure bozaz.

Lilia baratzean  
Baino garbiago,  
Ceruric goreneari  
Albhatua dago.

Edor da iguzkia  
Bere arrainekin.  
Ederrago Maria  
Bere graciekkin.

## Zeruko Erreginari

Kanta dezagun betan  
Birjina Maria  
Zeruko tronuetan  
Lorios jarria!

Detzagun Mariari  
Hel gure bihotzak  
Aingeruen bozeri  
Junta gure bozak.

Lilia baratzean  
Baino garbiago  
Zerurik gorenean  
Altxatua dago.

Eder da iguzkia  
Bere arraiekin <sup>(1)</sup>  
Ederrago Maria  
Bere graziekin.

---

<sup>(1)</sup> *rayons de soleil*

Nork gaitu beiratuko  
Etsaien artetik?  
Nore ceurats helduko  
Mariazue baizic?

Bere haurrac Mariac  
Ez ditu ahazton.  
Narrec gaitu guciac  
Cecutic arthaccon.

Adema



## Zeruko Erreginari

Nork gaitu beiratuko <sup>(1)</sup>  
Etsaien artetik?  
Nork zerurat helduko  
Maria zuk baizik?

Bere haurrak Mariak  
Ez ditu ahanzten  
Harek gaitu guziak  
Zerutik artatzen.


---

<sup>(1)</sup> gerizatuko, babestuko


*Vita Saindu  
Federco gaucetan  
ecin trompa daitenari.*

∞.∞

*Allegro. Lucies.*



*O - ho - re, a - mo - di - o , Spi - ta Sain - du - a -*




*ri ; Je - su - sen Bi - ca - ri - o , trom - pi - ex - dai - te - na - ri !*

*Batec*



*Je - su - kris - toc u - tei - a be - re or - dain , E -*



*li - xa - ren qui - da - ri , le - hon ar - train .*

*Errefaua.*

*Chore, amodio  
Vita Sainduari ;  
Jesusen Bicario  
Trompi' ex daitenari.*

## Aita Saindu, fedezko gauzetan, ezin tronpa daite[kee]nari

(guziek) Ohore, amodio,  
Aita Sainduari;  
Jesusen Bikario  
Tronp'ez daitenari

(batek) Jesu-Kristok utzia bere ordain  
Elizaren gidari, lehen Artzain

---

Paratzailearen oharra. Orain arte ez dugu argitaratu Adema-Zaldubiren zirriborrorik. Hona hemen haren lanetan aurkitu dugun bakanetarik bat. Funtsean hau ere ez da egiazko zirriborroa, behin bukatutzat utzia izan zen lana baizik, siñaturekin eta guziekin!!!

Ordea, zenbait urteren buruan hobetu egin zezakeela iruditu zitzaion, euskararekin egina zuen aitzinamendua lagun. Ez da hor harritzekorik: zein euskaltzaleri ez zaio gertatatu holako bat egitea? Zenbait hamarkada geroago egingen ditu bertze bertso batzuk, hobeak, osoagoak, hots aberatsagoak Aita Sainduaren goresteko: ikus jadanik argitaratua den KANTIKAK liburukia, 202. orrialdea...

Jesuskristoc utcia bere ordain  
Elixaren quidari, lehen Artzain.

Ohore, amodio  
Bita Sainduari  
Jesusen Bicarrio  
Grompi ex daitenari.

Jesusen erzan cion Parresi :  
« Ene ordain ~~ago~~ hi denon nausi.  
Ohore, amodio... ~~ago~~ **librean ago**

Izan hadi hi ecin hauxircoa  
Elixaren cimendu harrixcoa.  
Ohore, amodio....

Bildoxac bai ardiac, quiciac hic,  
Etipi eta handiac bazca zalcic.  
Ohore, amodio...

**anai quicien**  
Hire ~~anaiac~~ **anaiac** beren erdian hi  
Guzian ~~finca~~ **finca** traile izan hadi.  
**fedean** Ohore, amodio...

Parriesen gndoco Bita Saindu  
Elixac ~~aldu~~ **bethere** bat izan du.  
Ohore, amodio....

Aita Saindu, fedezko gauzetan, ezin tronpa daite[kee]nari

Jesu-Kristok utzia bere ordain  
Elizaren gidari, lehen Artzain

Ohore, amodio,  
Aita Sainduari;  
Jesusen Bikario  
Tronp'ez daitenari

Jesusek erran zion Piarresi:  
Ene ordain lurrean hago nausi!

Ohore, amodio...

Izan hadi hi ezin hautsizkoa  
Elizaren zimendu harrizkoa!

Ohore, amodio...

Bildotsak, bai ardiak, guziak hik  
Ttipi eta handiak bazka zatzik!

Ohore, amodio...

Hire anai guzien erdian hi,  
Fedean finkatzaile izan hadi!

Ohore, amodio...

Piarresen ondoko Aita Saindu  
Elizak betiere bat izan du.

Ohore, amodio...



~~Gorputzak barua du bethi lehen,  
Gure bita Saindua horra cer den.  
Ohore Amodio...~~

Jondoni Beliriren escu berex  
Elixa manatcen du Jainco lequer.  
Ohore Amodio...

Equiaren arguiac <sup>peder</sup> ~~galdia~~ gabe  
Haren esuan bethi garbi daude.  
Ohore, amodio...

Bere alkhi sainduti mintza bedi,  
Ex dirogu equia baicic adi.  
Ohore, amodio...

Cer sinhexi behar den edo equin,  
Jakitico astri da mintza dadin.  
Ohore, amodio...

Fedeaz iracusten duelaric  
Ex daitete harentzat trompatceric.  
Ohore amodio....

Sophex, jakinxun edo Sophexpicu,  
Luciaz argixtatcen harrec ditu.  
Ohore amodio....

Aita Saindu, fedezko gauzetan, ezin tronpa daite[kee]nari

Gorputzak burua du beti lehen  
Gure Aita Saindua horra zer den.

Ohore, amodio...

Jondoni Betiriren esku berez  
Eliza manatzen du Jainko legez

Ohore, amodio...

Egiaren argiak hedoi gabe  
Haren eskuan beti garbi daude

Ohore, amodio...

Bere alki saindutik mintza bedi  
Ez dirogu egia baizik adi.

Ohore, amodio...

Zer sinetsi behar den edo egin  
Jakiteko aski da mintza dadin.

Ohore, amodio...

Fedez erakusten duelarik  
Ez daiteke harentzat tronpatzerik

Ohore, amodio...

Apez jakintsun edo Apezpiku  
Guziak argitzen harek ditu

Ohore, amodio...

Elixaco Arzainen biltzarretan,  
Equiaren quiltza da haren baithan.  
Ohore, amodio . . .

Mundu hurec ez luke hola nahi  
Bairan bai ~~beza~~ ~~mana~~ fedeari.  
~~gu beha gaiten~~  
Ohore amodio . . .

Mita Saindua dugun <sup>betxi</sup> gure quida,  
Zaincoaz argitua bai hori baita.  
Ohore, amodio . . .

Gure buruzagia, gure Mita,  
Dugun sinhez, obedi, eta maita  
Ohore amodio . . .

G. Adema Zu

Aita Saindu, fedezko gauzetan, ezin tronpa daite[kee]nari

Elizako Artzainen biltzarretan  
Egiaren giltza da haren baitan

Ohore, amodio...

Mundu hunek ez luke hola nahi  
Bainan gu beha gauden fedeari

Ohore, amodio...

Aita Saindua dugun <sup>(1)</sup> beti gida  
Jainkoaz argitua hori baita

Ohore, amodio...

Gure buruzagia, gure aita  
Dugun <sup>(1)</sup> sinets, obedi eta maita

Ohore, amodio...

---

<sup>(1)</sup> ≈ dezagun

Si lo tari gazteac laster equizue, zu en famoz bazterrac inharros gatzue  
 zoin zu en joco quisaz hoz hor e mazue ju da a lo ri e tan be ha dago zu e.

1

Pilotari gazteac  
 laster equizue  
 zuen famoz bazterrac  
 inharros gatzue.  
 zoin zuen joco quisaz  
 hoz hor emazue,  
 zendea lorietan  
 beha dago zu e.

2

Escualdun gazteriac  
 beso zangoz arin  
 Bere azcaciari  
 ez die utko equin).  
 Pilota partidotan  
 oi cein den azequin)!.  
 Escualduna escualdun  
 bethi aguer dadin),

3

Lehen go pilotari  
 handien icenac  
 Ez dauzca ahantciric  
 escuatduna denac.  
 Orai pilotaritcen  
 hasiac direnac  
 On da erraraz detzan  
 heien aiphamenac.

4

Cer plaza quizon gaitzac  
 Dercaín eta, pozantzaca!  
 Hauche da heien famac  
 duen harramantzaca!  
 Espantuz baicen hebaz  
 ez daitke mintzaca,  
 Halaco guti baita  
 Orai esperantzaca).

[Pilotari gazteak] <sup>(1)</sup>

- 1 Pilotari gazteak laster egizue  
Zuen famaz bazterrak inarros zatzue  
Zoin zuen joko gisaz, hots, hor emazue  
Jendea lorietan beha dagozue
- 2 Eskualdun gazteriak beso-zangoz arin  
Bere askaziari <sup>(2)</sup> ez dik uko egin  
Pilota partidetan oi zein den atsegin!  
Eskualduna eskualdun beti ager dadin.
- 3 Lehengo pilotari handien izenak  
Ez dauzka ahantzirik eskualduna denak  
Orai pilotaritzen hasiak direnak  
On da ernaraz detzan heien aipamenak.
- 4 Zer plaza gizon gaitzak Perkain ta Azantza  
Hauxe da heien famak duen harramantza <sup>(3)</sup>!  
Espantuz baizen hetaz ez daiteke mintza  
Holako guti baita orai esperantza <sup>(4)</sup>.

<sup>(1)</sup> Pilotaz eta pilotariez oso jakina eta maitemindua zen Adema-Zaldubi. Bertso hauek 1857an paratu zituzkeen baina gero beti emendatzen eta aldatzen ari izan zen eta horrelaxe, 1890ean, 33 bertso-tarat igan zen azkenekotz! Ikus "Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak" liburukian.

<sup>(2)</sup> Bere "arrazari", bere ahaidegoari

<sup>(3)</sup> jendeen aho-mihitan guziz zabaldua

<sup>(4)</sup> ≈ horien parekorik igurikitzen, itxaroten

5

Bai besain bai besazpi  
 bai pumpa lasterrac  
 Pisechco cerabilzcan)  
 Curutchet Echguerrac.  
 Domingo Espelotar  
 jokhari supherrac  
 Harrituric zagozcan  
 harc ere bazterrac.

6

Betiri jandarm- eta  
 Herarizco Martin)  
 Bi Soldadueneco  
 osab- ilbequin),  
 Ehcand- eta Harla  
 Duluniarequin),  
 Gutic dute pilotan  
 hec bezala jakin).

7

Betiri Suraidarra  
 eta Sustun, biac),  
 Pare gabeac ciren)  
 erreferariac),  
 Frantchitzeguy Numeba  
 botari biciac  
 Dulico eta Onddore)  
 piclari hobiac.

8

Noien ondotic laster  
 Cascoina horra hori;  
 Nogoi urthez nihori  
 ez die eman arast  
 Coscoz bequiz berechiz  
 ez zuan ez nihor)  
 Harc bezala pilota  
 cezaquenic igor).

9

Trunen partida bat  
 nor ez da orhoitcen  
 Beihalaco atdian)  
 nola jokhatu cen)?  
 Cascoinaren truncoa)  
 icusgarri becen)  
 Carricaco Domingo  
 churmagarri han cen.

10

Pilotaco lequetan)  
 Demboratic huna  
 Hau da gambisqueta  
 querthatu zaicuna)  
 Egungo eguncan)  
 jende antceduna)  
 Cauza berri phematcen  
 ez daiteque unha.

## [Pilotari gazteak]

- 5 Bai besain, bai besazpi, bai punpa lasterrak  
Aisexko zerabilzkan Curutchet ezkerak  
Domingo ezpeletar jokari superrak  
Harriturik zagozkan <sup>(1)</sup> hark ere bazterrak
- 6 Betiri jandarma eta Herarizko Martin  
Bi Soldadueneko osab'ilobekin,  
Exkande ta Ibarla Duluniarekin  
Gutik dute pilotan hek bezala jakin.
- 7 Betiri zuraidarra eta Sustun biak  
Paregabeak ziren erreferariak  
Frantxisteguy Rumeba botari biziak  
Putiko eta Onddore pik-lari hobiak.
- 8 Hoi en ondolik laster Kaskoina horra hor:  
Hogoi urtez nihori ez dik eman amor  
Kaskoz begiz berexiz ez zuan ez nihor  
Hark bezala pilota zezakenik igor.
- 9 Irunen partida bat nor ez da orhoitzen  
Behialako aldian nola jokatu zen?  
Kaskoinaren trunkoa ikusgarri bezen  
Karrikako Domingo xarmagarri han zen.
- 10 Pilotako legetan denboratik huna  
Hau da kanbiaketa gertatu zaikuna  
Egungo egunean jende antzeduna  
Gauza berri pentsatzen ez daiteke unha.

---

<sup>(1)</sup> edo zerauzkan (zeuzkan, batuaz)



11  
 Escu huxca celaric  
 lehengo joco  
 Guero chago hasi con  
 escularruzcoa  
 Orai berritz atchiqui  
 sorquin horren joa  
 Bichtac ieus ahala  
 becin urrun doha.

12

Atchiqui joco hortaz  
 orai da haucia  
 Lequezo joa den etz  
 ala malecia  
 Bichtan da baduela  
 hainitz adreia,  
 Joiten dueno queiz  
 pilota licia.

13

Meltchorren joco guisa  
 duenac ieusi  
 Ez bide du jujatu  
 falta ez iusi  
 Ez quen urthe hoietan  
 ez quinon causi  
 Pilotan citeauenic  
 hoiri buruz nausi

14  
 Nafarro probintciac  
 pilotariz nasai,  
 ospatidion Franciac  
 ez cetzaz quen garhai.  
 Secular izaitecotz  
 heien contra orai  
 Francesa ez othe da  
 atheratceco gai?

15

Espanolac aspato  
 espantuz zaidacen  
 Pilotari derrie  
 ez cela hoc baien.  
 Francian ere nasqui  
 numbeit cebeit bacen  
 Orai coindiren nausi  
 icusterat quacens.

16

~~Fun carezte Mattin  
 Jan Baticht Norberlto?  
 Cascoorseme, hi epe  
 on hinte asquitto  
 Oltharre bostz garreatcat  
 ez liteque garahito  
 Cayet tlepi hoi ere  
 izanen da batto~~

## [Pilotari gazteak]

- I1 Esku huska zelarik lehengo joko  
 Geroxago hasi zen eskularruzkoa  
 Orai berriz atxiki sorgin horren joa  
 Bistak ikus ahala bezein urrun doa.
- I2 Atxiki joko hortaz orai da auzia  
 Legezko joa denetz ala malezia  
 Bistan da baduela ainitz adrezia  
 Joiten dueno guziz pilota bizia.
- I3 Meltxorren joko gisa duenak ikusi  
 Ez bide du jujatu, falta ez itsusi  
 Azken urte hoietan ez ginion <sup>(1)</sup> kausi  
 Pilotan zitekenik horri buruz nausi.
- I4 Nafarro probintziak pilotariz nasai  
 Aspaldian Frantziak ez zetzazken garhai[tu]  
 Sekulan izaitekotz heien kontra orai  
 Frantsesa ez ote da ateratzeko gai?
- I5 Espainolak aspaldi espantuz zaudezen  
 Pilotari ederrik ez zela hek baizen  
 Frantzian ere naski nunbeit zerbeit bazen  
 Orai zein diren nausi ikusterat guazen.
- I6 Nun zarezte Mattiu, Janbatixt, Norbertto?  
 Kaskoin seme hi ere on hinte askitto  
 Ottarre bortzgarrentzat ez liteke gaixto  
 Kalet ttipi hoi ere izanen da batto <sup>(2)</sup>.

---

<sup>(1)</sup> geniron (≈ genezakeen)

<sup>(2)</sup> bertso hau ez dakigu zergatik nahi zuen kendu. Hobeago batez ordaintzeko menturaz...

17  
 Lehen ere Norberto  
 badaquique cer con  
 Lehengo hura bera  
 orai da aqwertcen  
 Butan halaxo guti  
 bide da pharacen  
 Norc du berritz hainonaa  
 passo marra zaintcen?

18  
 Mattiu ahelctic  
 Jan Baticht Jaratic  
 Franciac hoies biac  
 orai atheratic  
 Guibel erreturnetan  
 bai erreleratic  
 Hoier juanen duenic  
 Espainiac ez dic.

19  
 Mattiuren esuraz  
 queroztic pilota  
 Doussi beha hobegui  
 ez baitegue josta  
 Jooa du segura  
 adret eta presta  
 Haren erreturnaren  
 parericam ez da

20  
 Espanlen jo airoa  
 lore-ta nasaia  
 Mattiurentz at oi cer  
 Kintcearen gaia  
 Guibeltic jostetan  
 Sartcen dic arraia  
 Errobot atdelican  
 passo dic usaia.

21  
 Jan baticht horae berritz  
 errobot barnetic  
 Bere casca gaichtoaz  
 Denac harritcen tic  
 Norc haren errefera  
 itzul guibeltic  
 Chichtuca dohanean  
 quicem artetic

22  
 Gure desafioez  
 jada espanola  
 fama da icituric  
 goidea dagola  
 Lehen balimbacion  
 ez cela aehola  
 Haren hitzac obreguin  
 norc orai antola.

## [Pilotari gazteak]

- 17 Lehen ere Norbertto badakigu zer zen  
Lehengo hura bera orai da agertzen  
Butan <sup>(1)</sup> holako guti bide da paratzen  
Nork du berriz hain ontsa paso marra zaintzen?
- 18 Mattiu Ahetzetik, Janbatixt Saratik  
Frantziak hoiek biak orai atera tik <sup>(2)</sup>  
Gibel erreturnetan bai erreferatik  
Heier juanen duenik Espainiak ez dik.
- 19 Mattiuren eskuraz geroztik pilota  
Deusi beha hobeki ez daiteke josta  
Jokoa du segura adret eta presta  
Haren erreturnaren parerikan ez da.
- 20 Espainolen jo airos lore-ta nasaia  
Mattiurentzat oi zer kintzearen gaia  
Gibeletik jostetan sartzen dik arraia  
Errebot aldetikan paso dik usaia.
- 21 Janbatixt horrek berriz errebot barnetik  
Bere kaska gaixtoaz denak harritzen tik <sup>(2)</sup>  
Nork haren errefera itzul gibeletik  
Xixtuka dohanean guzien artetik.
- 22 Gure desafioez jada espainola  
Fama da iziturik gordea dagola  
Lehen balin bazion <sup>(3)</sup> ez zela axola  
Haien hitzak obrekin nork orai antola?

---

<sup>(1)</sup> butean, sakean

<sup>(2)</sup> ditik (ditu, toka)

<sup>(3)</sup> bazioen, batuaz ( $\approx$  erraten bazuen)

1891 Ko Urriaren 13<sup>an</sup>, Karpatne Barandegian,  
Chanelon jaun *renaturari* eta haren *Kompainiari*,  
Buzkal ondoko usia chaharretako Koplati.

Sei pontutako ardi lachotan.

G. Zaldubik phaxateak.

Estuarax e - re mintzagai texon i - du - ri xait lu - ge de -  
la. Estual herriari baikare hemen ex laite gi - sa ber - tre  
la: Jaun ande raak, osagarri on Jainko o - nak dizue - la.

Estuarax ere mintza gaitzen  
duru xait luze dela;  
Estual herriari baikare hemen  
ex laite gisa bertzela:  
Jaun anderak osagarri on  
Jainko onak dizuela.

Kristau frantsesak demak bat ditzen,  
dugun ez dugu Jaun Chanelon.  
Kargudun hautu edo bortetan,  
oro gaiten fidel egon:  
Guk hautatuak izan ditzen  
luze zuzen egile on.

Guk Murde Labat dugu Laphuridin  
aspaldi gure gizona:  
Gure Tede' eta mitxo oroi  
hain atxikiat dagona  
Luzer oraino bizi dakegun  
dugun othoita Jainko ona.

Bachanabaren eta Chuberon  
duta Murde Etchaberi,  
Nihork ex dahi jaun hart bazala  
jende nekhatralon berri.  
Donen argitzen, orgi egiten,  
han dabila herrix herri.

Kuri' ta jende jainkotiarrez  
hautatua baron Garro  
Kopletari on giritxintzat  
Jaun ikusia dago.  
Ohorea du Jainko legeak  
atxikitzen zuzenago.

Diet Suprojet eta Koinichro,  
Demak aihur Goyhanetxi...  
Ezin aghaldurko gizona  
ex rutsa nahé onhetsi:  
Palero berak baino gorago  
ezin beriz dute utxi.

Juanchutok Karra antzara badu  
antzarago du Tede.  
Kolako baxa trufa baladi  
jainchikila Jainko gabsa.  
Lartxetko minex irakuts lero  
jainchikilak gibel aldean.

Gizon argitu giritxinoa,  
Geichenne jaun abokata,  
Estual herriko stomplustan  
ederrinetarik bat da.  
Estual herriari bere andrea  
egon ere zuzen hauta.

Ethorkorun bat edorra duxu  
zuti ere bai Murde Salla.  
Erlisionex, burux, fortunax  
xara guti nahé bazala:  
Estual herriak bere gixontat  
zu ere hauta xaitzala.

Bortxe jaun hori apher ex balite  
noren joak hex lezake.  
Korren arroxain erroz gaitzeri  
jokhatzea baita nekhe:  
Lumarik beizen ex den choria  
roth lero biphil hain merke?.

**1891ko urriaren 13an, Hazparne Barrandegian <sup>(1)</sup> Chesnelong jaun zenaturrari eta haren konpainiari bazkal ondoko usaia zaharreko koplak**

Sei pontutako erdi laxotan  
G. Zaldubik paratuak

Eskuaraz ere mintza gaitzen iduri zait lege dela  
Euskal Herrian baikare hemen ez laite gisa bertzela  
Jaun Andereak osagarri on Jainko onak dizuela.

Kristau frantsesak denak bat diton, dugun entzun Jaun Chenelon <sup>(2)</sup>  
Kargudun hautu edo bozketan, oro gaiten fidel egon  
Guk hautatuak izan ditezen lege zuzen egile on.

Guk Murde Labat <sup>(3)</sup> dugu Lapurdin aspaldi gure gizona:  
Gure fede ta intres orori hain atxikia dagona  
Luzaz oraino bizi dakigun dugun otoitz Jainko ona.

Baxenabarren eta Xuberon dute Murde Etxeberri <sup>(4)</sup>,  
Nehork ez daki jaun hark bezala jende nekazalen berri  
Denen argitzen ongi egiten han dabila herriz herri.

Herri ta jende jainkotiarrez hautatua Baron Garro <sup>(5)</sup>  
Kontseilari on giristinotzat Pauen ikusia dago  
Ohorea du Jainko legeak atxikitzen zuzenago.

<sup>(1)</sup> Barrandegia, Piarres Broussain euskaltzale handiaren etxondoa.

<sup>(2)</sup> Léon Guichenné, Pierre Broussainen koinata, Baionako abokat eta deputatu gaiak, antolatu zuen bazkari handi bat Pierre-Charles Chésnelong (1820-1899) Biarnoko jaun senatore ospetsuaren ohoretan.

<sup>(3)</sup> Jules Labat, Baionako auzapez eta deputatua.

<sup>(4)</sup> Louis Etcheverry, Mauleko deputatu eta 'Eskualduna' astekariaren sortzailea.

<sup>(5)</sup> Garro, Lekorne-Gerezieta Garroko baroina, Hazparneko kontseilari orokorra.

189 Iko urriaren 13an, Hazparne Barrandegian Chesnelong jaun zenaturrari  
eta haren konpainiari bazkal ondoko usaia zaharreko koplak

Prefet, Suprefet eta Minixtro denak aiher Goihenetxi <sup>(1)</sup>  
Ezin apalduzko gizona ez zuten nahi onetsi  
Halere berak baino gorago ezin heziz dute utzi.

Juantxutok <sup>(2)</sup> kara azkarra badu azkarrago du fedea  
Halako batez trufa baladi jaunxkila Jainko gabea  
Lasterxko minez erakuts liro jaunxkilak gibel aldea.

Gizon argitu giristinoa Guichenné <sup>(3)</sup> jaun abokata  
Eskual Herriko etsenpluetan ederrenetarik bat da  
Eskual Herrian bere andreaz egin ere zuen hauta.

Etorkizun bat ederra duzu zuk ere bai Murde Salha <sup>(4)</sup>  
Erlisioenez, buruz, fortunaz zare guk nahi bezala  
Eskual Herriak bere gizontzat zu ere hauta zaitzala.

Bertze jaun hori apez ez balitz noren joak hez lezake <sup>(5)</sup>  
Horren arrazoin erroz gaitzeri jokatzea baita neke  
Lumarik baizen ez den xoria nork liro bipil hain merke?

---

<sup>(1)</sup> Albert Goyeneche, Adema-Zaldubiren iloba, Donibane Lohizuneko auzapeza.

<sup>(2)</sup> Pierre Juantchuto, Kanboko mediku, auzapez eta kontseilari orokorra.

<sup>(3)</sup> Léon Guichenné, gero luzaz deputatu egonen dena.

<sup>(4)</sup> Salha, Amikuze aldeko familia ezagun batekoa.

<sup>(5)</sup> Apez izendatu gabe hau Laurent Diharassary dateke, Kanboko erretorea, euskal idazlea.

Il était de vieille tradition à Hasparren, qu'à la fin d'un repas de noces ou d'amis de marque, un barde quelconque faisant partie de la compagnie, improvisât un toast chanté en l'honneur des principaux convives.

Le 13 Octobre 1891, au banquet que la famille Broussain, Moreau, Guichenné a donné dans sa villa Barrandegia de Hasparren, en l'honneur de M. le Sénateur Chesnelong à l'occasion de sa conférence aux catholiques basques sur l'Union de la France Chrétienne, la vieille tradition du toast en vers basques a été observée par la lecture de quelques strophes composées à la hâte.

Quelqu'un s'est hâté de s'emparer de quelques couplets crayonnés tombés de la main du compositeur et de les publier tels quels malgré lui.

Dès que pareille suite a été donnée à cette pièce tout à fait fruste, l'auteur a cru devoir la livrer à quelques intimes, complétée et corrigée, telle qu'il aurait dû la produire au premier jet.

Quant à la coupure, aux rimes à deux vers, ainsi qu'à la musique ou à l'air, il s'est conformé aux usages consacrés par les anciens bardes en pareille circonstance.

Zalduby.

Il était de vieille tradition à Hasparren, qu'à la fin d'un repas de noces ou d'amis de marque, un barde quelconque faisant partie de la compagnie, improvisât un toast chanté en l'honneur des principaux convives.


Le 13 octobre 1891, au banquet que la famille Broussain, Moreau, Guichenné a donné en sa villa Barrandegia de Hasparren, en l'honneur de M. le Sénateur Chesnelong à l'occasion de sa conférence aux catholiques basques sur l'Union de la France Chrétienne, la vieille tradition du toast en vers basques a été observée par la lecture de quelques strophes composées à la hâte. Quelqu'un s'est hâté de s'emparer de quelques couplets crayonnés tombés de la main du compositeur et de les publier tels quels malgré lui.

Dès que pareille suite a été donnée à cette pièce tout à fait fruste, l'auteur a cru devoir la livrer à quelques intimes, complétée et corrigée, telle qu'il aurait dû la produire au premier jet.

Quant à la coupure, aux rimes à deux vers, ainsi qu'à la musique ou à l'air, il s'est conformé aux usages consacrés par les anciens bardes en pareille circonstance.

Zalduby





[Murde Diharassarry-ri]

Dugun edan bai eta kanta biba Jaun Apezpikua!  
Ekarri baiterauku berriz Erromatik jin mezua  
Orai dukegun atseginaz bera da loriatua


Erran behar dut berehala, berantegi nuke sarri  
Eskualdunek nor behar dugun deputatutzat ezarri  
Orai Erromaz onetsia den Murde Diharassarri.

---

Paratzailearen oharra. Laurent Diharassarry apezak (1848-1902) gora-beherak izan zituen Baionako apezpikuarekin eta dei egin zuen Erromarat eta han auzia irabazi 1892an. Gainerat "Monseigneur" titulua ere eskuratu zuen, Jean-Baptiste Mendiboure, bertze beskoitzar apez batekin batean. Ikus, "Histoire du Diocèse de Bayonne", Bernard Goity.

Diharassarry aurkeztu zen deputatugai ere 1893an baina ez zen hautetsia izan...

Erran dezagun oraino hemengo Adema-Zaldubiren idazkera zirriborroetan erabiltzen zuena dela eta beraz bertso hauei ez ziela azken orraztaldia emana...




## [Bidarrain nintzelarik]

Bidarrain nintzelarik, badu zombait urte  
 Ardi zahar bat nuen erosia merke  
 Hortzik ez zuelakotz haztea zen neke  
 Goseak hil zautala dudarik ez nuke.

Ardia hil orduko oi nere ikara  
 Bi otso jin zauzkidan goizetik bortara  
 Bi otsoen izenak detzagun deklarara  
 Bat Harizpuru eta bertzea Lizarraga.

Ardia larrutu-ta lanak ziren gero  
 Haragirik batere hezurra zen oro  
 Beharrik tripaz baitzen xeha errexago  
 Ez baininduten nihaur jan urusa nago.

Paratzailearen oharra. Badirudi Harizpuru eta Lizarraga izen asmatuak direla et zoin herritakoak diren ere ez dakigu...



[Ene auzotegian bi senar emazte] <sup>(1)</sup>

Ene auzotegian  
 Bi senar emazte  
 Bakean bizi dira  
 Hasarratu arte  
 Guardia elgarrekin <sup>(2)</sup>  
 Behin makurtzetik  
 Heien zuzentzaileak  
 Lan handiak ditik <sup>(3)</sup>.

Paratzailearen oharra. Ezkerreko eskuizkribu horren gainaldean ikus daiteke hutsarte handi bat. Horrek erran nahi du orrialde hori ez dela osoki bukatua, bereziki titulua eskas duela baina haren ezartzeko gogoaz bazukeela Adema-Zaldubik, lekua, luze ta zabal, begiratzen zionaz gero! Bertze eskuizkribu batzuetan ere ikus daiteke gauza bera.

Bertzalde, ondoko orrialde zenbaitetan ikusiko dugu bertso arteko marrazkia ere falta dela. Horrela behin eta berriz argi eta garbi ikusten da bertsoen idaztea eta haien apaintzea bi lan desberdin zaizkiola gure esteta handiari, aldi desberdinetan egitekoak:

—Lehen-lehenik inguruko marrazki edo kuadro apaingarri bat egiten zuen.

—Gero haren barnean bertso lerroak erdi-erdian kokatzen zituen, artoski neurturik: bazterrak, gaina, lerro arteak eta abar.

—Azkenik titulua ezartzen zuen, apaindurik, bertso arteko edo/eta ondoko marrazkiekin.

Partiturak ere, daudenean, uste dugu azkenik betetzen zituela.

<sup>(1)</sup> Egilea dukegu Gratien Adema-Zaldubi, “Lapurdum” aldizkariak halaxe baitakar, “Eskualduna” (1899-03-17) 603. zenbakia ematen digularik lekuko. Aldiz “Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak”-II-ak diosku Charles BECAS (1847-1911) dela egilea; ikus hitzak: 300. orrialdean; doinua: 873. orrialdean.

<sup>(2)</sup> “Iruten ari nuzu”-ren doinuan kanta daitezke bertso hauek; hala egitekotan, bortzgarren lerro horrek (bis) bikoizketaren marka behar luke.

<sup>(3)</sup> ditu, toka

Lehonic intzirina  
Guero deihadarca,  
Guero berritz escainca  
Arquenecotz joca:  
Horra cer bici modu  
Duten maix sequit on  
Dudario gabe gasta  
Diote causit on.

Guiconari on gao  
Corta bat gorritic  
Emaxteari berritz  
Clotta bat horitic.  
Haurramari ichilca  
Piarres haltoqui  
Bakhotcha bere alde  
Dabilta abilqui.

[Ene auzotegian bi senar emazte]

Lehenik intzirinaz <sup>(1)</sup>  
Gero deiadarka  
Gero berriz eskainka  
Azkenekotz joka  
Horra zer bizi modu  
Duten maiz segitzen  
Dudarik gabe gustu  
Diate kausitzen.

Gizonari on zaio  
Zorta bat gorritik  
Emazteari berriz  
Ttotta bat horitik  
Haurramari ixilka  
Piarres haltoki  
Bakotxa bere alde  
Dabiltza abilki.

---

<sup>(1)</sup> intzirika

*Ostatutic lekhora  
Bapo eta eder,  
Senharra ex dadila  
Sukhaldean agues.  
Guardia eman beso  
Bore andreari.  
Etottaren ondorio  
Omone tcharrari.*

*Guicon etohe galgarri  
Urno edalea.  
Ahalque behar hugue  
Kola bicittea.  
Haicen becalacoa  
Arraila goicetic.  
Ohaquit hiquin tçarra.  
Bequien bichtatic.*

[Ene auzotegian bi senar emazte]

Ostatutik lekora  
Bapo eta eder  
Senarra ez dadila  
Sukaldean ager  
Guardia eman bezo <sup>(1)</sup>  
Bere andreari  
Ttottaren ondorio  
Omore txarrari.

Gizon etxe galgarri  
Arno edalea  
Ahalke behar huke  
Hola bizitzea  
Haizen bezalakoa  
Arraila goizetik  
Hoakit higuin tzarra  
Begien bixtatik!

---

<sup>(1)</sup> biezaio



*Haurramari gaichua  
Ex bada hasarra,  
Hi beçalaco baten  
Badinat beharra,  
Emarte baliosa,  
Extia, ichila:  
Holaco bakhar batec  
Balio tin mila.*

*Guicon alfer teat gormant,  
Cikhin itsusia,  
Espaldion nauc hitax  
Espetcon hasia.  
Belhi querla gorria,  
Seculan baqueric,  
Ifernuan bide duc  
Hi baino hoberic.*

[Ene auzotegian bi senar emazte]

Haurramari gaixua  
Ez bada hasarra  
Hi bezalako baten  
Badinat <sup>(1)</sup> beharra  
Emazte baliosa  
Eztia, ixila  
Holako bakar batek  
Balio tin <sup>(2)</sup> mila.

Gizon alfer tzar gormant  
Zikin itsusia  
Aspaldian nauk <sup>(3)</sup> hitaz  
Asetzen hasia  
Beti gerla gorria  
Sekulan bakerik  
Ifernuan bide duk  
Hi baino hoberik.

---

<sup>(1)</sup> badut, noka

<sup>(2)</sup> ditin (ditu, noka)

<sup>(3)</sup> naiz, toka

Olhoi ago ichilic  
Ene emaxtea,  
Indan, bai laster guero  
Bi arten baquea.  
Cen nahi dun enequin  
Guerlan irabaci?  
Lehen ere badaquin  
Nola hautan heci.

Emaxteac ordian,  
hartcon du erkhatça,  
Eta chiminiatic  
Guizonac laatça.  
Batec uma ahala  
Berteac ai ai ai,  
Oi cein eder guduan  
Holaco bi etsai!

[Ene auzotegian bi senar emazte]

Otoi hago ixilik  
Ene emaztea  
Indan <sup>(1)</sup> bai laster gero  
Bi arten bakea  
Zer nahi dun enekin  
Gerlan irabazi?  
Lehen ere badakin  
Nola hautan <sup>(2)</sup> hezi.


Emazteak orduan  
Hartzen du erkatza  
Eta ximiniatik  
Gizonak laratza  
Batek uma <sup>(3)</sup> ahala  
Bertzeak ai ai ai!  
Oi zein eder guduan  
Holako bi etsai!

---

(1) emadan, egidan

(2) hindudan

(3) jo, zanpatu



[Ene auzotegian bi senar emazte]

Eltze, zartain, gatilu,  
Oro nahasteka  
Lurrerat aurdikiak  
Dabiltza ihauska  
Juaiten naiz jaun-andere  
Heien baketzera  
Umaturik <sup>(1)</sup> hor naute  
igorri etxera.

---

<sup>(1)</sup> zanpaturik



– II –

Gratien Adema-Zaldubi (1828-1907)

Alegiak eta bertze neurtitzak

[BERTZE BATZUEN LORATEGIETAN BILDUAK]






Gratien ADEMA

# "Zaldubi"

(1828-1907)



[ Bertze batzuen  
lorategietan  
bilduak ]

## Zaldi zahar baten gainean.

Aditua banian quan den denboretan,  
 haldi on bat bacela oihan hegi hantun,  
 Shaitaz larria eta indarrez flacua.  
 Nun equis othe zuten horren merkhatua?  
 Hamar urthe huntan cen hortzez gabetua!

Quan den hamar urthean zuen exhabia,  
 Als aindua zagocan bere estalia,  
 Biz carreo zauria mantaz estalia,  
 Korrekin ex citethen nikorat abia,  
 Lakhurantz at hobe da holaco zaldia.

Begi bat okhera eta bertia laua,  
 Bere bicyar quia zagocan zaurthua,  
 Buztan hezurerraino dena zornatua,  
 Zaldarez ex bide cen sobra mainatua,  
 Oihan erreca dago orai larrutua.

Zaldi zahar baten ganean <sup>(1)</sup>

Aditzia banian juan den denboretan,  
 Zaldi on bat bazela oihan hegi hautan,  
 Tailaz larria eta indarrez flakua.  
 Nun egin ote zuten horren merkatua?  
 Hamar urte huntan zen hortzez gabetua!

Juan den hamar urtean zuen ezkabia <sup>(2)</sup>  
 Usaindua zeraukan bere establia  
 Bizkarreko zauria mantaz estalia  
 Horrekin ez ziteken nehorat abia  
 Zakurrentzat hobe da holako zaldia.

Begi bat okerra ta bertzea lausua  
 Bere bizkar guzia zeraukan zaurtua  
 Buztan hezurreraino dena zornatua <sup>(3)</sup>  
 Zaldarez ez bide zen sobra mainatua <sup>(4)</sup>  
 Oihan errekan dago orai larrutua.

<sup>(1)</sup> Egilea FARIN Senperekoa (zendua 1851n); ikus “Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak” -II-, 501. orrialdean.

<sup>(2)</sup> *teigne?*

<sup>(3)</sup> *pus, abcès*

<sup>(4)</sup> ez zen sobera gastatua, artatua

Meroniec ikusi dut zilhoa batian!  
 Eroria zagola basaren erdian,  
 Ehun mila manduli bere iphurdian,  
 Adinaz orhoitu-ta nigarra begian,  
 Harri gizon begira zagoz hon aldian!

Nekthez altchatu eta berritz can erori...  
 Nondic sorthu othe da zaldi eder hori?  
 Horren erosturican ez zautku ageri.  
 Lana franco eman du hauzoko jenduari.  
 Mila quaraintzi dit horren jabeari!



Hiltreco menearu gizon garte  
 baten gogoetae.

Hemeretzi urtheac ez ditut orainic.  
 Eta hurbildua naiz hobira jadanic.  
 O me Jaungoicoa hauche da lastima!  
 Horren laster uztea aita eta ama!

## Zaldi zahar baten gainean

Neronek ikusi dut ziloka <sup>(1)</sup> batian  
 Eroria zagola basaren <sup>(2)</sup> erdian  
 Ehun mila manduli bere ipurdian  
 Adinaz orhoitu-ta nigarra begian  
 Zazpi gizon begira zagozkon aldian.

Nekez altxatu eta berriz zen erori  
 Nondik sortu ote da zaldi eder hori?  
 Horren eroslerikan ez zaiku ageri  
 Lana frango eman du auzoko jend*u*ari  
 Mila goraintzi diot horren jabeari!

Hiltzeko menean [den] gizon gazte baten gogoetak <sup>(3)</sup>

Hemeretzi urteak ez ditut orainik <sup>(4)</sup>  
 Eta hurbildua naiz hobira jadanik  
 O ene Jaungoikoa hauxe da lastima!  
 Horren <sup>(5)</sup> laster uztea aita eta ama!

---

<sup>(1)</sup> zilo batean den gunea

<sup>(2)</sup> lohia, parta, ixtila

<sup>(3)</sup> Egilea: Jean-Baptiste CAMOUSSARRY apeza (1815-1842)

<sup>(4)</sup> oraino nik

<sup>(5)</sup> hoin

Osasun handi batez bethi lagundua,  
 Serphegiatz idorra, oroz maithatua,  
 O ene Jaungoicoa haucha da lastima!  
 Colprexo herioac hobira narama!

Golde zorrotzac nota du bere bidcan,  
 Lili sortu berria picatcen burcan,  
 O ene Jaungoicoa, haucha<sup>da</sup> lastima!  
 Kala duzu picatcen biciaren trama!

Agintza onac nozcan ene buruari,  
 Gaitza nere gainera densan erori!  
 O ene Jaungoicoa, haucha da lastima!  
 Sentitcen dut jadanic herioaren zama.

Adi iguzki iderra adio secularo!  
 Egun argitzen nauzu ai azken aldico!  
 O ene Jaungoicoa haucha da lastima!  
 Oi gorphutzetec orai dohallit arima!

Secularo loac nau jadanic lehertcen,  
 Herio lazgarria hurbil dut ikusten!  
 Oi ene Jaungoicoa haucha da lastima!  
 Sentitcen dut zainetan herioaren horma!

Hiltzeko menean [den] gizon gazte baten gogoetak

Osasun handi batez beti lagundua  
Aurpegiak ederra oroz maitatua  
O ene Jaungoikoa hauxe da lastima!  
Kolpezko herioak hobira narama!

Golde zorrotzak nola du bere bidean  
Lili sortu berria pikatzen lurrean  
O ene Jaungoikoa hauxe da lastima!  
Hala duzu pikatzen biziaren trama!

Agintza onak niozkan <sup>(1)</sup> ene buruari  
Gaitza nere gainera denean erori  
O ene Jaungoikoa hauxe da lastima!  
Sentitzen dut jadanik heriuaren zama.

Adi iguzki ederra, adio sekulako!  
Egun argitzen nauzu ni azken aldiko!  
O ene Jaungoikoa hauxe da lastima!  
Ai gorputzetik orai dohakit arima!

Sekulako loak nau jadanik lehertzen  
Herio lazgarria hurbil dut ikusten  
O ene Jaungoikoa hauxe da lastima!  
Sentitzen dut zainetan heriuaren horma <sup>(2)</sup>.

---

<sup>(1)</sup> nizekion

<sup>(2)</sup> herioaren hotza




Aditzen duc jadaric neronec ezkida,  
 Nintki adiarazten hiltzera nokala,  
 Enetzat Jaungoicoa othoitz dezatela,  
 Bihar megutaren du izatu naizela!

Bihar ene gorphutza erdi ustoldua,  
 Izanen da bethicotz hobian sarthua,  
 Oi ene Jaungoicoa hauche da lastima!  
 Eta nuen izanen da nuen ene arima.

Kure baithan dut Jauna ene esperantza,  
 Ez zazula arbuia ez ene othoitzza;  
 Orhoit zaitz oi orhoit metzat duzula  
 Galbaris gainean ichuri odola.

Camussarry



Hiltzeko menean [den] gizon gazte baten gogoetak

Aditzen dut jadanik neronek <sup>(1)</sup> ezkila  
Minki adiarazten hiltzera nohala  
Enetzat Jaungoikoa otoitz dezatela  
Bihar mezuturen du izatu naizela <sup>(2)</sup>!

Bihar ene gorputza erdi usteldua  
Izanen da betikotz hobian sartua  
O ene Jaungoikoa hauxe da lastima!  
Eta nun izanen da nun ene arima?

Zure baitan dut Jauna ene esperantza  
Ez zazula arbuia ez ene otoitza;  
Orhoit zaite, oi orhoit enetzat duzula  
Galbario ganean ixuri odola.

---

<sup>(1)</sup> nihausk

<sup>(2)</sup> ≈ baina ez naizela gehiago, hila izanen naizelakotz

## Rumalacarregi.

Nun dire bada orai coplari Escualdunac  
 Heritarren loriac unkhitzgen tuenac?  
 Cer hari dire bada? Nun da heien kharra?  
 Orai die Escualdunac bai heien beharra.

Utz zatic, coplaria, utz surjet argelac,  
 Kanta zac Escualduna eta haron gerlac:  
 Cer? .. egonen othe haiz herabe eta nagi,  
 Ikusten dukanear Rumalacarregi?

Bai, cikhin zac ahoa copla lizunetan,  
 Egin zatick bersuac ostatu tzarretan,  
 Sal zac hire antcea, sal combeit sosetari:  
 Ez duc, ez duc Escualdun odoliz zainetan

Haiceac nola khea baitu barrayaten,  
 Izuzkiac herrechki ilhuna khasatzen,  
 Hala hire bertsuac, hala secularo,  
 Ethorkizunac ditic laster ahantico.

## Zumalakarregi <sup>(1)</sup>

Nun dire bada orai koplari eskualdunak  
 Herritarren loriak hunkitzen tuenak <sup>(2)</sup>?  
 Zer ari dire bada, nun da heien karra?  
 Orai dik eskualdunak bai heien beharra.

Utz zatzik <sup>(3)</sup> koplaria, utz suiet ergelak  
 Kanta zak eskualduna eta haren gerlak  
 Zer, egonen ote haiz herabe eta nagi  
 Ikusten dukanean Zumalakarregi?

Bai zikin zak ahoa kopla lizunetan  
 Egin zatzik <sup>(4)</sup> bertsuak ostatu tzarretan  
 Sal hire antzea, sal zenbait sosetan  
 Ez duk, ez duk eskualdun odolik zainetan

Haizeak nola kea baitu barraiatzen  
 Iguzkiak errexki iluna kasatzen  
 Hala hire bertsuak, hala sekulako  
 Etorkizunak ditik <sup>(5)</sup> laster ahantziko.

<sup>(1)</sup> Egilea: Jean-Baptiste CAMOUSSARRY apezka (1815-1842); ikus, "Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kanta" -II-, 342. orrialdean; 1835ean idatzia Piarres Charrittonek utzi artxi-boen arabera.

<sup>(2)</sup> dituenak

<sup>(3)</sup> utz itzak

<sup>(4)</sup> egin itzak

<sup>(5)</sup> ditu, toka

Ordean bihotzean barna landatuac,  
 Zaren tuc eneac behi cantatuac.  
 Escualdunen arrazac irauenen dueno.  
 Escualdunec escualdun bihotza duteno.

Nic sentitzen ditiat ene gainac sutan,  
 Sukharra sarthua duc bai ene muinetan.  
 Hartzen diat guduco Escualdun trompeta,  
 Goraki dotzadantzat Escualdunac canta.

= Hamar bat Escualdunen buruan jarric,  
 Harma diru, deus gabe, bihotzaz bertoric,  
 Jeneral Escualdunac, Escualdunec segur.  
 Ez da ez orresuma oso baten beldur.

«Ni ganat Escualdunac, du oihu egiten,  
 Buruzagi atze bat dautzue emaiten.  
 Gure errega dute urrun desterratu,  
 Beren azpiar nahi gaituzte lehertu.

«Nahi duc Escualdunac hoin behera jarri?  
 Atze baten nahien azpirat erori?  
 Atze bat duc burutzat hozki ikusico,  
 Emaztegi atze bat tronuan utzico?»

## Zumalakarregi

Ordean bihotzean barna landatuak  
Izanen tuk <sup>(1)</sup> eneak beti kantatuak  
Eskualdunen arrazak iraunen dueno  
Eskualdunek eskualdun bihotza duteno.

Nik sentitzen ditiak ene zainak sutan  
Sukarra sartua duk bai nere muinetan;  
Hartzen diat guduko eskualdun tronpeta  
Goraki detzadantzat <sup>(2)</sup> eskualdunak kanta.

Hamar bat eskualdunen buruan jarririk  
Arma, diru, deus gabe, bihotzaz bertzerik  
Jeneral eskualduna eskualdunez segur  
Ez da ez erresuma oso baten beldur.

“Ni ganat eskualdunak du oihera egiten  
Buruzagi atze <sup>(3)</sup> bat dautzue <sup>(4)</sup> emaiten  
Gure errege dute urrun desterratu  
Beren azpian nahi gaituzte lehertu.”

“Nahi duk eskualduna hoin behera jarri?  
Atze baten nahien azpirat erori?  
Atze bat duk burutzat hozki ikusiko  
Emazteki atze bat tronuan utziko?”

---

<sup>(1)</sup> dituk; dira, toka

<sup>(2)</sup> ditzadan

<sup>(3)</sup> atzerritarra, kanpotarra

<sup>(4)</sup> dizue

«Orhoit hadi Escualduna, hire arbasoex!  
 Cesar berac doidoia, urthe oso batez,  
 Cian zuen herria azkenic beretu,  
 Seculan ez ordean bihotzac gairraitu.

«Ez gitekanez ez heies nauzi ezagutzen,  
 Berac harturicaco erregeric baicen.  
 Guduan cirenian bazakitem hiltcen,  
 Ez ordean bazotki atzei obeditecen.

«Cioten: Lehenago dire igaturen,  
 Itsasoco ubinac mendien puntara,  
 Ezen ez esualduna atciem escutara,  
 Ahantzeiric nor cer den baita eroriren!»

«Ez beza Escualdunac entzun ene boza,  
 Ez beza deusec urtkhi haren bihotz hotza!  
 Banoha ene aiten gisa egiterat  
 Ene erregereutzat guduan hiltzerat.»

«Dio; eta ospeca gizonac harmetan,  
 Nor zaizco mulkhsocatcen bere ingurutan.  
 Kafartarra lehenic hi agertu hintzen!  
 Hic huen erakutsi Escualduna cer cen!»

## Zumalakarregi

Orhoit hadi eskualduna hire arbasoez!  
Zesar berak doi-doia urte oso batez  
Zian <sup>(1)</sup> zuen herria azkenik beretu  
Sekulan ez ordean bihotzak garhaitu.

“Ez zitekan <sup>(2)</sup> ez heiek nausi ezagutzen  
Berek harturikako erregerik baizen  
Gudian zirenean bazakiten hiltzen  
Ez ordean lazoki atzei obeditzen.”

“Zioten lehenago dire hupaturen  
Itsasoko uhinak mendien puntara,  
Ezen ez eskualduna atzien eskutara,  
Ahantzirik nor zer den baita eroriren.

“Ez beza eskualdunak entzun ene boza  
Ez beza deusek hunki haren bihotz hotza!  
Banoha ene aiten gisa egiterat  
Ene erregerentzat guduan hiltzerat.

Dio: eta ospeka <sup>(3)</sup> gizonak armetan  
Hor zaizko multzokatzen bere ingurutan  
Nafartarra lehenik hi agertu hintzen!  
Hik huen erakutsi eskualduna zer zen!

---

(1) zuen, toka?

(2) zuten, toka

(3) osteka, andana handitan



Hiren egin ederrac ikusirik gero,  
 Altxatzen tute bertzeac borthitz eta bero,  
 Lehen iduriflaco, orai harri garri,  
 Etsaia duc jadanic ikharatan jarri.

Hala chirripa bat lehen mehe cena  
 Baratce zokhoz zokho ichilic zokana,  
 Ur laguncz egina ibai izigarri,  
 Garrantiar dokatzu eder eta lodi.

Norc orai, oi norc atebik Escualdunen kharra?  
 Norc orai bara hoien General suharra?  
 Nse dire mendiac ase bai odoloz,  
 Orai celhaciac beitetz estal gorpsutz hilez!

Dembora duc o Baldes, altcha tropa denac,  
 Jadanic lur planetan horra Escualdunac,  
 Bainan artha harzac, zukur izan hadi,  
 Sintcinerat heldu zaik kumalakharregi.

Orai duc Escualduna, orai duc ordua,  
 Bayonet eta lantzac chorroch, Soldadua!  
 Begotz etsai nagiac urrundic tiroca!  
 Bayonetaz hic dahik hurbildican joca!

## Zumalakarregi

Hire egin <sup>(1)</sup> ederrak ikusirik gero  
 Altxatzen tuk <sup>(2)</sup> bertzeak bortitz eta bero  
 Lehen iduri flako orai harrigarri  
 Etsaia duk jadanik ikaretan jarri.

Hala xirripa bat lehen mehe zena  
 Baratze zokoz zoko ixilik zohana <sup>(3)</sup>  
 Ur lagunez egina ibai izigarri  
 Garhaitiar dohatzi <sup>(4)</sup> eder eta lodi.

Nork orai, oi nork atxik eskualdunen karra?  
 Nork orai bara hoi en jeneral suharra?  
 Ase dire mendiak ase bai odolez  
 Orai zelaiak baitetz <sup>(5)</sup> estal gorputz hilez!

Denbora duk o Baldes <sup>(6)</sup>, altxa tropa denak  
 Jadanik lur planetan horra eskualdunak  
 Bainan arta har ezak zuhur izan hadi  
 Aintzinerat heldu zaik Zumalakarregi.

Orai duk eskualduna, orai duk ordua  
 Baionet eta lantzak xorrotx soldadua!  
 Begotz <sup>(7)</sup> etsai nagiak urrundik tiroka!  
 Baionetaz badakik hurbildikan joka!

---

(1) egintza

(2) dituk; ditu toka

(3) zihona

/4) doaz

(5) bitez

(6) ?

(7) beude

Ez du ospe handiac Karlista baratcon,  
 Etsaiaren indarrac ez du ikharatzen.  
 Ubai handiz odola badoka landetan,  
 Beltz bat ez dago chutic heien aldaketan.

Ez cen nikor ageri Karlisten artean,  
 Gorrituac ez cenic etsai odolean.  
 Hiren ezprata horri, suzco generala,  
 Kurritan zariocian orduan odola.

Oi cer laster dohatzin ihesi herrestan,  
 Harma botaturican, ikharaterrayetan,  
 Erreginac cituen gizon gogorrenac,  
 Bere aboz guduan hain bortxitz cirenac.

« Ezprata kolpe batez escualdun herriac  
 Gure escuclara dituki erriac,  
 Dio soldadueri General gorriac,  
 Bertze batez detzagun chekatia hiriac. »

Chimichtaren pareco, erran becin sari,  
 Sua davisela zaldian da jarri.  
 Olimuztatcon ditu bere Escualdunac  
 Bostki alimatuac jadanic cirenac.

## Zumalakarregi

Ez du oste handiak Karlista baratzen  
Etsaiaren indarrak ez du ikaratzen  
Ibai handiz odola badoha landetan  
Beltz bat ez dago xutik heien aldaketan <sup>(1)</sup>.

Ez zen nehor ageri Karlisten artean  
Gorritua ez zenik etsai odolean  
Hire ezpata horri suzko jenerala  
Zurrutan zarioian <sup>(2)</sup> orduan odola.

Oi zein laster dohatzin ihesi herrestan  
Armak botaturikan ikara erraietan  
Erreginak zituen gizon gogorrenak  
Bere ahoz guduan hain bortitz zirenak.

“Ezpata kolpe batez eskualdun herriak  
Gure eskuetarat dituk eroriak!  
Dio soldadueri jeneral gorriak  
Bertze batez detzagun xehaka <sup>(3)</sup> hiriak!”

Ximixtaren pareko erran bezain sarri  
Sua darioela zaldian da jarri  
Animaztatzen <sup>(4)</sup> ditu bere eskualdunak  
Aski animatuak jadanik zirenak.

---

<sup>(1)</sup> haien inguruetan

<sup>(2)</sup> zerion, toka (darion, adizkitik)

<sup>(3)</sup> porroskatu, birrindu

<sup>(4)</sup> berotzen

Hets zatzis hets Bilbao hire portaleac,  
 Jar beitez jar harmetan hire beiraleac!  
 Egin zac ahen, egin, o hire supherra,  
 Erori behar baituc, Bilbao, lurrera.

Zadanis Escualdunac belhi garratias,  
 Karrasi ingurutan borhitz bezein suhar?  
 Bdituric hirico jendeen oihuac,  
 Lerroz leuro iderki dire hedatuac.

Hirur gudu handitan Escualdunon Kharraac  
 Brras hautsi zituen exaien indarraac,  
 Entsegu bat oraino, eta hiri hori  
 Bkhabo da segurti; behar du erori.

Bainan oi ondikocho gure zorigaitza!  
 Oi gure Zaincoaren justicia latza!  
 Haren esua lioc bara lasterregi,  
 Hil behar duc hil behar Zumabakarregi!

Harekin hauri dire bai gure indarraac!  
 Norc ditu baratuco, norc gure nigarraac?  
 Galdu duc Escualduna, hire esperantza!  
 Bkhus zac hedatua haren gorputz hotza!

## Zumalakarregi

Hets zatzik <sup>(1)</sup> hets Bilbao hire portaleak  
Jar beitez, jar armetan hire beiraleak <sup>(2)</sup>!  
Egin zak auhen egin, o hiri superra  
Erori behar baituk Bilbao lurrera.

Jadanik eskualdunak beti garhaitiar  
Harresi ingurutan bortitz bezain suhar  
Aditurik hiriko jendeen oihuak  
Lerroz lerro ederki dire hedatuak.

Hiru gudu handitan eskualdunen karrak  
Arras hautsi zituen etsaien indarrak  
Entsegu bat oraino eta hiri hori  
Akabo da segurki behar du erori.

Bainan oi ondikozko gure zorigaitza!  
Oi gure Jainkoaren justizia latza!  
Haren eskua lirok bara <sup>(3)</sup> lasterregi  
Hil behar duk hil behar Zumalakarregi!

Harekin hautsi dire bai gure indarrak  
Nork ditu baratuko, nork gure nigarrak?  
Galdu duk eskualduna hire esperantza!  
Ikusak hedatua haren gorputz hotza!

---


<sup>(1)</sup> hets itzak

<sup>(2)</sup> begiraleak, zaintzaileak

<sup>(3)</sup> ≈ haren eskua lezakek geldiaraz lasterregi

Ahi! zure justician zure jendeari  
 Eman izan diozu kolpe handi hori!  
 Oi zure gaungoicoa, ordu da oraitic,  
 zure esua dadin bara sarastitic!

Ezli bedi, Gaun ona zure sumindura,  
 Itxus ezazu othoi oi zure heritura!  
 Tedea bera dago hiristku handian,  
 Ahi! Berorren ez pata sar bedi maginan.



## Zumalakarregi

Ai! zure justizian gure jendeari  
Eman izan diozu kolpe handi hori!  
Oi gure Jaungoikoa, ordu da oraitik  
Zure eskua dadin bara sarraskitik!

Ezti bedi Jaun ona zure sumindura  
